Irakaslearen gidaliburua
(zirriborroa)

1

Izarren hautsa

(Txanela - Material globalizatua,
Lehen Hezkuntza - 5. maila)

TXANELA 5: LEHENENGO UNITATE DIDAKTIKOAREN GIDA

"IZARREN HAUTSA"

Ongi etorri 5. mailara, irakasle!
Gida honetan eta ondorengoetan ere dagoeneko aski ezagunak izango dituzun hainbat azalpen aurkituko dituzu, garrantzitsua iruditu baitzaigu hainbat alderdiren garrantzia azpimarratzea edota lantzeko beharrezkoa den prozesua berriz ere gogora ekartzea.

Oharra: Unitate didaktiko honetan, atzetik datozenetan baino jarduera gehiago aurkituko dituzue. Hori dela eta, argibide batzuk eman nahi genizkizuke:

Txanela proiektua eskuzabala da jarduerak eskaintzeko orduan, baina horrek ez du esan nahi bertan agertzen diren jarduera guztiak egin behar direnik. Inondik inora ere ez. Arrazoi ezberdinak direla eta (ikastolak berezkoak dituen urteroko ekintzak, ikasleek etxetik ekarritako materialari eskaini beharreko arreta eta denbora...), **ezinezkoa da jarduera guztiak egitea** (ez unitate honetan ez eta besteetan ere); beraz, **behar-beharrezkoa da aukeraketa egitea**. Proiektuak nahi duena da irakasleak esku artean proposamen zabala izatea eta, taldearen beharren eta premien arabera, jardueren aukeraketa egiteko aukera eskaintzea.

Urtero, ikasturte hasieran, lehenengo unitatea lantzen ari garen neurrian, **gelaren antolaketa** ere martxan jartzen da. Unitate honetan, gelaren antolaketarako hainbat proposamen azaltzen dira. Halere, **jarduera hauek guztiak ez daude unitate honek dirauen bitartean egin beharrik.** Nahi izanez gero, ikasturtea aurrera doan heinean eman diezaiekezue hasiera, eta bukaera, berriz, dinamikaren baitan erabakiko duzue.

Unitatearen gaia eta haria: Unibertsoa: Galaxiak (izarrak), Esne Bidea, Eguzki-sistema (planetak, sateliteak eta beste gorputz zerutiar batzuk), Lurra (gure planeta eta gu) eta baita geure arteko harremanak ere.

Proiektua(k): Unibertsoari buruz ikasitakoetatik abiatuz, ideiak sortu, ipuinak idatzi, ilustratu, editatu eta jendaurrean aurkeztu.

Urte osorako proiektuak: Txokoak: "Ipuinen txokoa", "Liburutegia", "Txoko zuria", "Konpositoreen txokoa", "Gutunen txokoa", "Erranak erran txokoa" eta "Albisteen txokoa". Hemen edo han, gure Txanelan!

Aukerako irteerak: Planetariumera, gai honekin zerikusia duen edozein erakusketa ikustera, museoa eta abar.

ZEHAR LERROAK, TREBETASUN SOZIALAK

Giza eskubideak, harremanak eta bake hezkuntza.	Lagunarteko harremanak: elkartasuna, balioak, erabakiak hartzea, asertibitatea eta enpatia.

EUSKAL DIMENTSIOA

Hizkuntza eta literatura	Igarkizunak, J. M. Irigoien Txisteak. "Labean egosita" J. M. Olaizola, "Txiliku". "Hiru Emakume Urdinak" "Hiru emakume urdinen begi bakarra". J. M. Olaizola, "Txiliku". "Bideo-joko berria", J. M. Olaizola, "Txiliku".
Musika eta gorputz motrizitatea	"Izarren hautsa", Xabier Lete. Mikel Laboa. "Gure koadrila", Joxean Ormazabal eta Imanol Urbieta. "Ttunttun bero", Joxean Ormazabal eta Imanol Urbieta. "Eguzkie joan da", Tapia eta Leturia. Amuriza. "Bertsoen unibertsoa", Mikel Mendizabal.
Ingurumena	Euskal zientzilariak: Elhuyar, Armand, Barandiaran, Altuna, Etxenike.

UNITATEEN EGITURA

• **Hasierako jarduerak:**
- Azalaren behaketa.
- Komikia
- Aurre-ezagutzak
- Proiektuaren aurkezpena.
- Ikasnorabidea.

• **Garapeneko jarduerak**: Gaia atalka lantzeko jarduerak.
- Gaia landu ahala beste batzuen artean unitate guztietan aurkituko dituzuen konstanteak:
  + Ingeleseko orria.
  + Lagun artean.
  + Ipuina irakurri aurretik eta irakurri ondoren.
  + Liburu artean.
  + Hiztunak eta hizkuntzak.
  + Artelana.
  + Bueltako komikia.
  + Hitz-errota.
  + Kanta-kantari

• **Sintesia**: Ikasitakoa eta egindakoa berrikusteaz gain, ebaluatzeko eredu gisako jarduerak ere aurkituko dituzue.

Bibliografia euskaraz:

"Zientzia eta Unibertsoa", Ttarttalo.
"Euskal Herritik Unibertsora", Geografi Atlasa. Elkar. Gaiaren inguruko hainbat azalpen ematen dira atlas honen hasierako orrialdeetan.
Gurasoei aholkatzeko biografia: "Internet, videojuegos, televisión... Manual para padres preocupados". Egilea: Serge Tisseron. Argitaletxea: Graó. 2006ko martxoa.

IKT jarduerak

Duela zenbait urte hasita, Ikastolen Elkartea hezkuntza eremuko I+G+B egitasmoak eta proiektuak garatzen ari da. IKT (Informazio eta Komunikazio Teknologiak) alorrean hainbat urtetako eskarmentua metatua du, euskarazko eta euskal kulturan ardaztutako software kurrikularra eta aisialdikoa ekoiztean aitzindaria izanez. Horren lekuko dira, besteak beste:

- **IKASYS** Ikastolen Elkarteak garatutako hezkuntza alorreko proiektu berritzailea. IKASYS proiektuak konpetentzien garapenerako beharrezkoak diren baliabideen sistematizazioa du helburu nagusia; horretarako, trebakuntzan, memorizazioan eta ulermenaren garapenean oinarritutako tipologia askotariko jarduera sorta handia eskaintzen du.
- **Txanela webgunea (**www.txanela.net**).** Lehen Hezkuntzarako IKT konpetentziak hainbat konstanteren inguruan lantzeko eta garatzeko bidea aurkituko da Txanela webgunean. Lehen Hezkuntzako irakasleei zuzendurik, arloz arloko eta mailaz mailako jarduerak aurkezten dira. Oraingoz, "Txanela Globalizatua" deritzan arlo multzoan (Euskara- Ingurunea-Plastika) txertatu dira IKT jarduerak.
- **Ostadar webgunea** (www.ostadar.net). Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleei eta ikasleei zuzendurik, arloz arloko eta mailaz mailako jarduerak aurkezten dira han. Irakasleari, gida didaktikoa jardueraz jarduera zehaztuta eskaintzeaz gain, IKT jarduerak egiteko eta gidatzeko zehaztapen guztiak ematen zaizkio. Ikasleari, IKT jarduerak proposatzeaz gain, haiek egiteko behar dituen baliabideak ematen zaizkio. Oraingoz, Ostadar proiektuko hiru arloetan txertatu dira IKT jarduerak: Naturaren Zientziak, Gizarte Zientziak eta Euskara eta Literatura.

* * * * * * * * * * *

Virtusbooks plataforma

IKASELKAR argitaletxeak (Ikastolen Elkarteak eta Elkar argitaletxeak sortua) 2011-2012 ikasturtetik aurrera beste aukera bat eskainiko du. Beste baliabide bat eskaintzen da teknologia berrien eta IKT jardueren arloan. **Virtusbooks** (http://www.virtusbooks.com/) plataformaren bidez zoom-liburua eskaintzen zaie irakasleei eta ikasleei, ohiko ikasliburuen osagarri. Zoom-liburu horretan hainbat baliabide txertatu dira: bideoak, audioak, fitxategiak, estekak... Txanela webgunean eta Osdadar webgunean dauden hainbat IKT-jarduera ere gehitu zaizkio. Horrela, irakasleak gune berean izango ditu Txanela proiektuak (Ostadar proiektuak) dituen baliabide guztiak, hainbat proiektagailu, erreproduzitzaile, etab. erabili beharrik gabe.

Hurrengo orrialdean agertzen den taularen bidez irakasleak jakingo du zein jardueratan izango duen baliabide digitaletara jotzeko aukera. Bestalde, irakasleak berak ere erantsi ahal izango ditu baliabideak, gero ikasleek arbel digitalean edo bakoitzaren ordenagailuan ikus ditzaten.

BALIABIDEAK

Liburu digitalaren eta gidaliburuaren arteko lotura

Gidaliburuko jarduera	Baliabide mota	Edukia	Txanelako orrialdea	Liburu digitaleko orrialdea
0		Baliabideen taula	3	3
6		*Izarren hautsa*	5	5
9		Zer da unibertsoa?	8	8
16		Ikasgelako bloga	13	13
18		Unibertsoaren sorrera	14	14
18		Big-Bang, zer da?	14	14
19		Entzunaldia: *Planetak*	14	14
20		Big-Bang eztanda dramatizatzen	14	14
21		Hiztegi digitalak	15	15
25		Kontzeptu-mapa	17	17
26		Hiztegi digitalak	18	18
31		Zeru-mapa	20-21	20-21
34		Irudi fantastikoa	24	24
43		Unibertsoaren sorrera eta osagai nagusiak	32	32

43		Nolakoa da eguzki-sistema?	32	32
43		Eguzki-sistema	32	32
47		Euskalkiak	36	36
48		Bertsozale Elkartea	37	37
49		Bertso-saioa	37	37
52-57		Artelana	39	39
58		*Lurra: gure etxea*	40	40
59		Lurraren mugimenduak	40	40
61		Ilargia	42	42
61		*Gure satelitea: Ilargia. Eklipseak*	42	42
63		*Otasoina eta Ilargia*	42	42
66		*Ttunttun bero!*	45	45
68		*Gure kuadrilla*	47	47

JARDUEREN ANALISIA

1. Aurreko urteetan egindakoa gogora ekartzen
Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian

Litekeena da aurten ikasle berririk ez izatea eta, ikaskideak ezagunak izateaz gain, irakaslea ere iazko berbera izatea. Hala ere, ikasturte hasiera honetan, memoria freskatu eta aurreko zikloan egindakoak (proiektu, irteera, landutako gaiak...) gogora ekartzea proposatzen dizuegu. Irakaslea edo ikasleren bat berria balitz, hari zuzenduko genioke informazioa.
Elkarrizketa honetan gogora ekarriko dugu, baita ere, gela nola antolatu genuen, zer txoko jarri genituen martxan, arduren banaketa, etab., horrek aurten gelaren antolaketa martxan jartzeko bidean ipiniko baikaitu.

2. Gelaren antolaketa: Txokoak
Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian

Ikasleekin batera gela antolatzen (txokoak, etab.) hasi eta eguneroko ekintzak zerrendatzearekin batera, arduren banaketa egiten hasiko gara.

Ondorengo koadroetan, txoko bakoitzaren funtzionamenduari eta antolamenduari buruzko laburpentxoa duzue.

IDAZLEEN TXOKOA

Edozein testu mota ekoizteko (ipuinak, olerkiak, txisteak, eskutitzak, etab.) lagungarri izan dakigukeen edozein informazio landu ahala, kartulinatan idatzi eta txoko horri dagokion espazioan itsatsiko dugu, ikasleek euren testuak ekoizteko orduan, behar dituzten erreferentziak, bertan, begien bistan izan ditzaten.

TXOKO ZURIA

Gelan, ikasleek TXOKO ZURIA izenez ezagutzen duten espazio bat utziko dugu. Txoko hori gai bakoitzean landuko ditugun proiektuei kokagunea eskaintzeko pentsatuta dago. Edozein motatako materiala izan daiteke baliagarria eta aproposa txoko hori hornitzeko eta erabiltzeko (bideo, liburu, argazki, marrazki, aldizkari, panpina, artelan, poster...), betiere, gaiarekin zerikusia duena. Urteek irakatsi digute txokoa gainezka egoten dela eta ikasleentzat oso motibagarria dela, edozein mementotan informazio bila bertara jotzeko aukera polita ematen baitu.

Dagoeneko, martxan jarri duten irakasleen balorazioetan, aniztasunari eta erritmo desberdinei erantzuteko oso baliabide aproposa dela jakin ahal izan dugu. Lanak azkarrago burutzen dituzten ikasleek, txoko horretara jotzeko ohitura garatu omen dute, eta gaiaren inguruko informazioa, literatura, etab. irakurtzen eta aztertzen ari diren bitartean, irakasleak mantsoago dabiltzan ikasleei kasu egiteko aukera izaten omen du.

LIBURUTEGIA

Gelako liburutegia antolatzeari garrantzi handia eman izan diogu beti, funtsezkoa da txoko hori. Gure proposamena ahal duzuen liburutegi zabalena jartzea da (gela bakoitzean posible ez bada, espazio komuna izanik, gertuko bat izan daiteke), eta bertan komikiak, ipuinak, informazio liburuak, hiztegiak, aldizkariak eta egunkariak jar daitezke.

Egunero-egunero, etxera joan baino bost edo hamar minutu lehenago, gelako liburuak hartzeko aukera emango diegu ikasleei. Horretarako, haur bakoitzaren liburutegi-fitxa prestatu behar da, etxera eramaten dituen liburuak apunta ditzan.

Liburutegia (nola txoko zuria) hornitzeko, ikasleek liburuak ekar ditzakete etxetik. Izena jar diezaietela, epe bat pasa ondoren, itzul ditzaten.

Garrantzitsua da liburuen erabilerari buruz hainbat aholku ematea ere. Balio ekonomikoaz eta afektiboaz (gozamena, oroimenak, kontsultarako eduki ahal izatea...) hitz egin. Eta nola zaindu behar ditugun guztien artean hitz egin (eskuak garbitu, poliki ibili, bertan ez idatzi eta ez margotu..., adib.). Etxera eramanez gero, bertan behar adina denbora eduki, baina ez behar baino gehiago...

Txoko hori ustiatzeko hainbat proposamen aurkituko dituzue unitateetan zehar.

GURE KONPOSITOREEN TXOKOA

Txoko hau urtean zehar lantzen ditugun musikako entzunaldien inguruan egindako lanarekin (obrari eta egileari buruzko datuak nahiz entzunaldia dela medio osatutako hainbat lanen ekoizpenak) hornituko dugu.

ZER BERRI

Zerbaiten berri eman diezagukeen gutun (gurasoek bidalitakoak, ikastolara edota gelara heltzen zaizkigunak...), albiste edo iragarki (herriko ikuskizun, txapelketa...) itsasteko espazioa da “zer berri”.

Txokoa antolatzeko, koloretako kartulina handiak aerofix-ekin forratzen baditugu, zinta eransgarria errazago kendu ahal izango dugu, eta kartulina gehiago erantsiz, txokoa handitzeko aukera emango digu.

Ziklo honetan, irakasle eta familien arteko erlazio idatzia bultzatzen ere jarraituko dugu, hizkuntza idatzia era funtzionalean lantzeko, hau da, komunikatzeko tresna bezala.

Txoko honek, tokirik edukiz gero, behintzat, beste aukera bat ere eskaintzen digu: GURASOEKIN komunikatzeko eta GURASOEN ARTEKO komunikazioa bultzatzeko aukera. Gela bakoitzak ez du derrigorrez berea eduki behar, gurasoentzako informazio orokorra jartzeko kortxo bat ere egokia izan daiteke, hainbat gauza jartzeko: menua, irtenaldiak, festarako gonbiteak eta beharrak, hezkuntza aldizkarietako artikulutxoak, gurasoen ekarpenak...

PRENTSA TXOKOA

Beste espazio bat PRENTSA TXOKOA izatea proposatzen dugu. Aurreko txokoetan bezala, izena txartel batean jarri.

Irakasleak egunero EGUNKARIA gelara ekartzen jarraituko du, eta liburutegian, *Euskal prentsaren tokia* edukiko du, nahi duten ikasleek ikus edo irakur dezaten. Egunkariarekin batera komenigarria litzateke euskaraz argitaratzen diren beste aldizkari batzuk ere edukitzea: herri aldizkaria, ikastolako haurrek/helduek argitaratzen dutena, *Argia*...

Albisteren batek interesa pizten badigu, moztu, irakurri, eta *Albisteen txokoan* itsatsiko dugu. Jarduera horrek hainbat gairi buruz hitz egiteko aukera emango digu.

Era berean, lantzen ari garen gaiekin zerikusia duen edo, besterik gabe, bere interesa piztu duen edozein albiste ere etxetik ekar dezaten animatuko ditugu ikasleak.

Txoko hori ustiatzeko, unitateetan zehar hainbat proposamen aurkituko baduzue ere, hirugarren unitatean modu berezian lantzen da, proiektua bera prentsa aztertzea eta albisteak sortzea izango denez, ezinbestekoa izango duzue txoko hori ondo horniturik izatea.

ERRANEN TXOKOA

Unitateetan zehar (komikietan, ipuinetan, lan-koadernoetan...) aurkezten diren esamolde eta esaera guztiak kartulinatan idatzi eta ERRANEN TXOKOAN jarriko ditugu. Edozein unetan, esaera batek adierazten duen egoera erreal bat gertatzen denean, esaerari erreferentzia eginez erabiltzeko aukera aprobetxatuko dugu. Esamoldeekin beste hainbeste egingo dugu, irakaslea bere eguneroko jardueran erabilitako ahozko hizkuntzan bat edo beste txertatzen saiatzen bada, bere aho hizkuntza aberasteaz gain, ikasleentzat ere eredu bikaina izango da, ez baita nahikoa behin edo birritan lantzea norberaren erabileran txertatzeko.

HEMEN EDO HAN, GURE TXANELAN!

"Hemen edo han, gure Txanelan" urte osoko proiektua izango da, unitatez unitate osatuz joango garena, hala ere, unitate bakoitzeko zatiak nortasun propioa izango du.

Koaderno erraldoi bat izango da, argazki bilduma berezia. Bertan, unitate bakoitzean egindako proiektuaren fase ezberdinetako argazkiak jarriko ditugu, eta argazki bakoitzak bere azalpena izango du. Koaderno horrek urte osoan zehar jarraitutako ibilbidea erakutsiko digu. Gure ikasketetako bizipenak argazki bidez adieraziko dira, bakoitzaren azalpen eta guzti. Azalpen horiek ez dira zertan formalak izan, ez gara azalpen-liburu bat osatzen ari, gure oroimen-albuma baizik. Azalpenak formalak ez izateak ez du esan nahi zuzen adierazita eta ulertzeko moduan egon behar ez dutenik, kontuan izan behar baitugu, guretzat izateaz gain, hainbat jendek ikusteko eta irakurtzeko aukera izango duela, guraso izan nahiz ikastolako beste kideren bat izan.

Album hau osatzeko prozedura hurrengo hau izan daiteke:

- Presta ezazue albumaren azala, agian txanelaren irudia jar dezakezue bertan.
- Ondoren, taldetxoetako batek presta dezala, era kolektiboan, gai honi dagokion azala; hainbat teknika erabil ditzakezue horretarako.
- Taldetxoetan bilduko gara. Taldekideek egokitu zaien argazkiaren oinean idatziko duten azalpentxoan adieraziko dituzten ideiak adostu ondoren, azalpenaren zirriborroa idatzi, zuzendu eta folio batean txukun-txukun idatziko dute. Gero, albumean argazkia eta azalpena kokatuko dituzte.

3. Egunerokoa edota pentsamenduen koadernoa

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Urte osorako proiektua izan daitekeen egunerokoa martxan jartzeko aukera ere gogora ekarri nahi dizuegu. Proiektu hau aurreko zikloetan ere erabili denez, irakasleen esku uzten dugu martxan jartzeko erabakia. Egunerokoa ikasturte hasieran nahiz zeuok egoki ikusten duzuen unean jar dezakezue martxan, eta proiektuaren iraupena luzatu edo laburtu dezakezue (hilabete bitik behin landuz, adibidez), dinamikak agintzen duenaren arabera, eta atseden-tarteak hartu ere bai, etab.

Ikasle bakoitzak egunerokoa idazteko bakarrik izango den koadernotxo bat (polita) izango du, ikasleek eurek egina, horrela nahi baduzue. (Barrualdean, folioak eta aurreko eta atzeko azala egiteko, kartulina erabil dezakete, tenperekin nahiz beste material batekin marraztu edo apaindu ostean, plastifikatu eta folioekin batera grapatu eta koaderno itxura emanda).

Eguneroko horretan, ikasleek egunero eta bakarka, goizeko lehen orduan, zerbait idatziko dute, beraiek nahi dutena: gertakari bat, berri bat, sentimendu bat, pentsamendu bat, kezka bat, iritzi bat, interesgarria edo garrantzitsua den zerbait, iraganekoa edo orainaldikoa... Tarteka, denbora izanez gero, apain dezakete marrazkien edo beste teknika baten bidez (bidean aurkitu duen kromoa itsatsiz...). Eta idatzi duen hori berrikusi eta zuzentzeko ohitura har dezan landuko dugu. Eguneroko dotorea lortu behar dugula adierazi guztiei, eta mimoz zaindu dezaten eskatu.

Ikasleak idatzi duen hori, hartzaileari dagokionean, era askotara bidera dezakegu. Egunerokoa gauza intimoa izan daiteke, eta kontu handiz erabiliko ditugu gauza horiek. Edozein erabaki hartzen dugula ere, "negoziatua" eta "kontsentsuatua" izan beharko du. Hona aukera batzuk (hauen arteko konbinazioak ere egin daitezke):

- Idatzitakoa berrikusi ondoren, irakasleari emango dio irakur dezan eta, ondoren, bien arteko elkarrizketa txikia sortuko dute idatzitako horren inguruan.
- Txandatuz, ikasleen idatzi labur horiek egileak edota tutoreak (ikaslearen baimenarekin, jakina) taldeari ere irakur diezazkioke. Astean pare bat egunetan –tutoretza-ordua ere horretarako egokia izan daiteke–, hartu horretarako denbora pixka bat. Taldean idatzitakoaren inguruko elkarrizketatxoa gara daiteke. Ikasle guztiek hartuko dute parte fisikoki eta entzuketa aktiboa eginez, baina, hasieran, ez itzazue hitz egitera derrigortu, denborarekin eurek parte hartu nahiko dute eta.
  Korroan jarrita, ikasle guztiek bata bestearen aurpegia ikusten dutela burutuko genuke solasaldia. Nahi duen ikasleak egunerokoan idatzia duen sentimendu, kezka, berri... irakurtzeko edo ahoz kontatzeko aukera izango du, hau da, irakasleari kontatu beharrean, beste ikaskideei kontatu edo irakurriko die, eta, ondoren, norbaitek horren inguruko zerbait esan nahi badu, aukera izango du, hitza eskatu eta txanda errespetatuta, bere iritzia, aholkua eta abar adierazteko.

- Pentsamendu bat edo beste –denboraren arabera– arbelean idatz daiteke eta haren zuzenketa kolektiboa ere egin dezakezue. Betiere ikaslearen produkzioa errespetatuz, ondo egindakoa txalotuz eta hobetzeko asmoarekin. Ortografia eta puntuazio-arauak lantzeko une aproposa da honako hau.

- Idatzitakoa norberarentzat geratzen da eta, inoiz nahi izanez gero, taldeari edo irakasleari adierazten zaio eta, egoki ikusten bada, zuzenketa egiteari ekiten zaio.

- Ikasturtea aurrera doan neurrian, ikasleek beren produkzioak berrikusi eta idazkerari buruzko balorazio txikiak egin ditzakete. Zertan hobetu dut nire idazkera eta nire egunerokoaren itxura? Zer hobetu beharko nuke oraindik ere?

Eguneroko honen funtzioa bikoitza da: batetik, idatzizko komunikazioan oinarritutako idazketa-prozesua garatzea, eta bestetik, irakaslearen eta ikaslearen arteko komunikazioa eta harremana sendotzea.

Ikasleak egunero idaztean, hizkuntza idatzia landu eta garatuko du, pentsamendua hitz eta esaldi esanguratsu eta egituratuen bidez adieraziz, letra ulergarriz idatziz eta beharrezkoak diren puntuazio-arauak jarriz, hartzaileak (norberak, irakasleak) uler dezan. Beraz, idazketa komunikatibo eta funtzionalaren zentzua barneratuko du ikasleak, apurka-apurka, jarduera honekin. Horrez gain, irakaslearekin, nahiz taldean, izan ditzakeen elkarrizketetan, hizkuntza-funtzioak martxan jartzerakoan, ahozko hizkuntzaren zuzeneko garapena bideratuko da eta ikaslearentzako sentimendu hustuketa edo bide askea ere gerta daiteke, agian ahoz esatera ausartzen ez den gauza bat errazago gertatzen zaiolako idatziaren bidez askatzea.

Horregatik, ahozko eta idatzizko hizkuntzaren garapena lantzeaz gain, ikaslearen alde emozionala eta afektiboa ere lantzeko aukera ematen digu ekintza honek. Eta irakaslearen aldetik, ikasleak hobeto ezagutzeko eta ulertzeko aukera ere ematen du.

Idazketaren zuzenketari dagokionez, zuzenketak ikasleen koadernoan egin beharrean, komenigarriagoa litzateke ikasleei esatea euren idatziak irakaslearengana joan aurretik irakurtzeko eta egokiak diren zuzenketak egiteko, edo, bestela, irakurri ahala ulertarazi ikasleei, beraiek idatzitakoa ulertzeko zailtasunak ditugula, agian punturik ez duelako jarri, letra ez delako ulertzen... ikasleak nahiko duenez irakasleak idatzitakoa ulertzea, berehala ekingo dio zuzenketak egiteari. Gogoratu egunerokoak dotorea izan behar duela eta gorriz zikinduta ez dela batere erakargarria geratzen.

Jarduera honen prozedura oso garrantzitsua da: errespetuz entzuten ikastea, entzundakoaren inguruko interesa adieraztea, hausnartzea, enpatia lantzea... Irakaslearen lana prozedura hori guztia modu egokian bideratzea da.

Proposamen honen inguruan sakontzeko, ikus honako artikulu hau*: "Pentsamenduen koadernoa": idazketa funtzional eta komunikatiborako proposamena*. Mikel Prieto Gil de San Vicente. Ikastolen Elkartea. Irakurketa eta idazketa. VIII. Jardunaldi pedagogikoak. Gasteiz, 2001.

4. Karpetaren analisia

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian
Materiala: Liburuak biltzen dituen karpetaren azala eta unitateak

Lehen unitateari heldu aurretik, unitateen karpetari begirada bat botako diogu. Azalaren atzeko aldean, lehen hiru gaien izenburuak aurkituko ditugu eta, unitateen atzeko aldean bezalaxe, baita erabiliko ditugun beste baliabideen ikonoak ere. Ikasleek dagoeneko ezagutzen dituzte; beraz, egizue guztion artean errepasotxo bat. Tarte bat eman ikasleei, ondoren, unitateei gainbegiratua botatzeko.

5. Azala behatzea eta elkarrizketa

Lan egiteko era: Talde handian
Materiala: Unitate didaktikoaren azala

Beti bezala, lehen unitatearen azalari behatuz hasiko gara lanean, aurreikuspen estrategiak landu eta haurrak motibatzeko asmoz. Elkarrizketa bideratzeko, Tough-en hizkuntza-funtzioetan oinarrituko gara, elementuak izendatuz, euren artean erlazionatuz, esandakoa arrazoituz eta iragartzeari bidea emanez.

- *Zer adierazi nahi du izenburuak?*
- *Izenda itzazu irudian agertzen diren elementuak. Ezagunak al dituzu? Zerikusirik ba al dute batak bestearekin?*
- *Zer erlazio dago irudien eta izenburuaren artean?*
- *Zeri buruzkoa izango dela uste duzu unitate hau? Justifikatu zure erantzuna.*

Elkarrizketa bukatzean, ikasleek euren izena idatziko dute unitatearen hirugarren orrialdean.

6. Ikasturteko gaien aurkezpena eta komikiaren sarrera

Lan egiteko era: Bakarka/Tald handian
Materiala: Ikaslearen liburua, 4. eta 5. or./Irakurgaiak 5, 3. orrialdetik 5.era/CDa, 1. pista

Bi orrialde hauetan agertzen den bineta erraldoi honek, aurten landuko ditugun sei gaien aurkezpena egiteaz gain, gai honi hasiera ere eman nahi dio. Bertan, ikasle-talde bat ageri da. Ikasturteari hasiera berezia eman nahi izan diote eta, ikastetxe askotan egin ohi duten bezala, ikasleen eta ikasle-irakasleen arteko harremana sendotzeko eta, kasu askotan, sortzeko helburuarekin, ostegun gaueko izar-euria aitzakia, aterpetxe batera joan dira ikasturteko lehenengo asteko azken bi egunak pasatzera.

Tarte bat emango diegu ikasleei irudiari behatu, testuak irakurri eta horien inguruan bakarka hausnar dezaten.

Jarraian, Tough-en hizkuntza-funtzioen sailkapena duzu. Ezaguna baduzu ere, berrikus ezazu. Gogoratu, komenigarria dela hizkuntza-funtzio guztiak lantzea, baina horrek ez du esan nahi funtzio guztiak jarduera bakar batean martxan ipini behar dituzuenik, jardueraren arabera, bat edo beste aukeratu eta landu baizik.

TOUGH-EN HIZKUNTZ FUNTZIOEN SAILKAPENA 3., 4., 5., 6. ETA 7. ATALAK

Tough-ek hizkuntza-funtzioak zazpi ataletan banatzen ditu. Ereduan, 3., 4., 5., 6. eta 7. atalak besterik ez daude, aurreneko biak gelako eguneroko harremanean garatzen baitira. Funtzio asko direnez, hainbat saiotan lantzea aholkatzen dugu, egoera edo irudi bakoitzaren inguruan egokienak aukeratuta.

Funtzio horiek, azalaren behaketan martxan ipintzen ditugun bezala, edozein horma-irudi, komiki, marrazki, gelako egoera eta abarretan martxan jartzeko aukera dugu. Gogoan izan behar dugu, hizkuntzan trebatzeko asmoz, erabili egin behar direla eta egunero gelako bizitzako mila egoera (arazoak, liskarrak, deskribapenak, kontaketak...) egoki aurkituko ditugula funtzio jakin bat martxan jartzeko.

3. ORAINGO ETA LEHEN BIZI IZANDAKO ESPERIENTZIEN KONTAKETA
3.1. Partaideak izendatzea.
3.2. Xehetasunen aipamena.
3.3. Izandako gorabeheren aipamena.
3.4. Gertakizunen sekuentzien aipamena.
3.5. Konparazioak egitea.
3.6. Elkarrekin zerikusia duten gauzen ezagutza.
3.7. Gorago aipatutako ezaugarrietako batzuk erabiliz, azterketa egitea.
3.8. Gertakizun baten esanahi nagusia ateratzea edo ezagutzea.
3.9. Esperientzien esanahiei buruzko hausnarketak egitea, haurraren beraren sentimenduak barne.

4. ARRAZOIBIDE LOGIKORANTZ
4.1. Prozesu baten azalpena.
4.2. Harreman kausalak eta menpetasunezkoak ezagutzea.
4.3. Arazoak ezagutzea eta horien irtenbideak ezagutzea.
4.4. Iritziak eta ekintzak arrazoitzea.
4.5. Gertakizunei buruzko hausnarketa egitea eta ondorioak ateratzea.
4.6. Hastapen edo printzipioen ezagutza.

5. IRAGARRI
5.1. Gertakizunak aurreikustea eta horiei aurrea hartzea.
5.2. Gertakizunen zehaztasunei aurrea hartzea.
5.3. Gertakizun-sekuentzia batzuk aurrez adieraztea.
5.4. Arazoak aurreikustea eta horiek izan ditzaketen irtenbideak aurkitzea.
5.5. Ekintza-maila alternatiboak aurreikustea.
5.6. Ekintza edo gertakizunen ondorioak aurrez ateratzea.

6. PROIEKTATU
6.1. Besteen esperientzietarako proiekzioa.
6.2. Besteen sentimenduetarako proiekzioa.
6.3. Besteen erreakzioekiko proiekzioa.
6.4. Bizi izan ez diren egoeretarako proiekzioa.

7. IMAJINATU
7.1. Bizitza errealean oinarritutako irudimenezko egoera bat kontatzea.
7.2. Ameskerietan oinarritutako irudimenezko egoera bat kontatzea edo azaltzea.
7.3. Asmatutako istorio bat kontatzea edo antzeztea.

Hona hemen esandakoaren adibidea, bineta honekin lantzeko:

3. ORAINGO ETA LEHEN BIZI IZANDAKO ESPERIENTZIEN KONTAKETA

Zein pertsonaia agertzen dira komikian?
Nola laburbilduko zenuke bineta honetan gertatzen dena?
Kontatu bineta honetan gertatzen ari diren ekintzak.
Kontatu, orain, bineta honetako ekintza nagusia.
Zer zerikusi dute neska-mutil hauek euren artean?
Nor da neska-mutil hauekin dagoen heldua?
Animaliak ere agertzen dira bineta honetan, zein?
Zein etxe mota da binetan agertzen dena?
Zer ekintza mota egiten da horrelako etxeetan?
...?

4. ARRAZOIBIDE LOGIKORANTZ

Zein urtaro dela uste duzu eta zergatik?
Zer ordu izango da gutxi gorabehera? Nola dakizu?
Zergatik edo zertarako ari dira mukurrak bilatzen eta pilatzen?
Ba al dakizu zer adierazi nahi duten idatzitako testuek?
...?

5. IRAGARRI

Nongoak izango dira lagun hauek?
Zein mailatakoak izango dira?
Zertara joan direla uste duzu mendi aldeko aterpetxera?
Zer harreman mota izango dutela uste duzu euren artean?
Pertsonaia batek dioenez, abestiak ikasiko duten ia guztiari buruzko zerbait esaten omen du. Kantari erreparatuz, zer gai ikasiko dituzuela uste duzu?
...?

6. PROIEKTATU

Nola sentitzen dela uste duzu lagun hauetariko bakoitza? Zerk adierazten du hori?
Nola egongo zirela uste duzu aurreko gauean, jakinik hurrengo bi egunak kanpoan emango zituztela?
Nola sentituko dira lokartzeko orduan, ohean, basoko soinuak entzunez eta etxetik hain urrun?
Nola sentituko dira bi egun hauek pasatu ondoren etxera joan beharra izatean?
...?

7. IMAJINATU

Imajinatu ikasturtea modu berezian hasteko aukera duzula, ikaskideekin batera nora edo hara joateko aukera izanik. Nora joatea gustatuko litzaizuke, eta zer egitera?
...?

Abesti honen ulermen zehatza zaila gerta dakieke ikasleei, esanahi anitzekoa baita; horregatik, hasteko, bakarka irakurriko dute eta, ondoren, taldean irakurriko dugu, galdera hauek eginez:

- *Zein da abesti honen gaia; alegia, zeri buruz hitz egiten du?*

Ondoren, abestiaren esaldi jakin batzuen esanahiari buruz hitz egingo dugu, aurten landuko ditugun gaiekin erlazionatu nahian, "gure sustraiak lurrari lotuz", "ez daukanak ongi ohi daki"... Elkarrizketa bukatzean, abestia entzun eta kantatzeari ekingo diogu.

Abesti honen letra Xabier Leterena da. Xabierrek berak abesteaz gain, beste hainbat musikarik ere euren errepertorioan badarabilte, Mikel Laboak... Abesti honen bertsioak, beraz, ugariak dira; ekar itzazue gelara eta entzun haiek ere, bertsioak zer diren jakiteko aukera paregabea emateaz gain, "zenbat lagun hainbat gustu" izaten denaz ere jabetzeko.

7. Komikia

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian
Materiala: Ikaslearen liburua, 6. eta 7. or.

Tarte bat emango diegu ikasleei, komikia bakarka irakurtzeko. Adieraz iezaiezue, beti bezala, komikian hitza bezain adierazgarria izan daitekeela irudian bertan ager daitekeen edozein xehetasun; beraz, eman iezaiezue behar beste denbora hori sakonki beha dezaten.

Lehenengo komiki honetan, igarkizun txiki bat jarriko diegu ikasleei. Pertsonaiak berriak dira eta ez dute beren burua aurkezten. Badaude baten edo bestearen izenak ondorioztatzeko pista batzuk, baina guztienak inolaz ere ez. Beraz, lehenik, irakurketa eginez, Intza, Uxue eta Jon nor diren asmatu beharko dute.
Aitor eta Manex nor diren ezin dute asmatu komikia irakurrita; beraz, bi horien artean pista bat aukeratu eta eman ikasleei:

- Aitor guraso euskaldun zaharren semea da, eta hitanoz (hika) hitz egiteko joera du.
- Manex animalia zalea da, eta maskota batekin ibiltzen da hara eta hona.

Falta den neskaren izena Maddi da. Mementoz, koadrilakoak 6 baitira. Intza Euskal Herrira bizitzera etorri berria da eta euskara amarengandik ikasi badu ere, zertxobait kostatzen zaio. Jon Down sindromearekin jaioa da, oso alaia eta baikorra, eta lagun handia dute.

Protagonisten izenak asmatu ondoren, taldean elkarrizketa sortuko dugu eta Tough-en hizkuntza-funtzio bat edo beste martxan jarriko.

Hainbat mintzagai dituzue, nahi izanez gero une desberdinetan tratatzeko (tutoretza baterako gaiak ere izan daitezke).

- Koadrila. (Unitatearen bukaera aldera, lagunak, enpatia eta asertibitatea landuko dira. Ikus 44. eta 45. orrialdeak).
- Kanpotik etorri eta lagun berriak egiteko zailtasunak.
- Down sindromea zer den eta nola lagundu eta jokatu horrelako lagunekin.
- Irteerak, gaubeilak, sua, arriskuak…
- Izarrak, izar-euria, ilargia, unibertsoa…

Gero, taldean komikiaren inguruko elkarrizketa sortuko dugu eta Tough-en hizkuntza-funtzio bat edo beste martxan jarriko. Horra behean aukerako galdera batzuk:

- *Manexek "Magnetofoia barruan uztera goaz" dioenean, Aitorrek bi andereñoei laguntzen geratuko dela dio. Biak al dira andereñoak? Zer esan nahi du horrekin?*
- *Zure ustez, Aitorrek, Manexek, Uxuek, Jonek eta Maddik zer motatako harremana dute euren artean?*
- *Zer iruditzen zaizu Uxuek Intzarekin duen jarrera? Zer gertatzen zaiola uste duzu Uxueri?*
- *Badirudi Uxueren haserrearen ostean beldurra ezkutatzen dela, zure ustez, zeren beldur da Uxue?*
- *Udan liburutegian gertatutakoa kontatzerakoan, badirudi Jon aulki gainera igo zela. Berak dio disimulatzeko izan zela. Zuk hori uste al duzu? Zergatik?*
- *Nork lagundu dio Intzari sua amatatzen? Zergatik lagundu diola uste duzu, berari buruz gaizki-esaka aritu baldin bada?*
- *Intza ez da hitz-totela, baina, batzuetan, hitzak ahoan trabatu egiten zaizkio. Zergatik gertatzen zaiola hori uste duzu?*
- *Zer da izar-euria? Inoiz ikusi al duzu izar euririk? Noiz? Nolakoa zen? Gustukoa al duzu? Zergatik?*
- *Intzak beste bosten koadrilakoa gustura izango litzatekeela adierazten du bineta batean. Zer da koadrila? Zuk ba al duzu koadrilarik? Zer harreman mota duzue koadrilakoen artean? Gustura sentitzen al zara zure koadrilakoekin? Zergatik? Zergatik nahi izango duela Intzak uste duzu besteen koadrilakoa izatea? Lortuko al du?*
- *Gelakide guztiak zeruari begira daudenean eta andereñok "Hor dago. Ikusten al duzue?" esaten duenean, zeri buruz ari da? Ba al dakizu zer diren konstelazioak? Eta ba al dakizu zerbait izarrek sortzen dituzten irudiei buruz? Zer konstelazio ezagutzen duzu?*
- *Jonek ez du oso ondo ulertzen zergatik den zerua hain iluna hainbeste argi izanik. Zuk ulertzen al duzu? Zergatik izango dela uste duzu?*
- *Manexek eta Jonek astronauta izango direla aipatzen duten elkarrizketa horretan hitanoz hitz egiten ari dira. Ba al dakizu zer den hori? Zuk hitz egiten al duzu hikaz? Eta zure ingurukoek? Non eta nori entzun diezu hitanoz hitz egiten? Gustatuko litzaizuke hikaz hitz egiten ikastea?*
- *Zer dakizu astronautei buruz? Eta ilargiari buruz? ...?*
- *Zergatik galdetzen diotela Intzari uste duzu "iretargi" andaluzierazko hitza ote den? Zer esan nahi du iretargi hitzak? Nongoa dela uste duzu Intza? Eta bere ahaideak?*
- *Badirudi Maddiri ez zaiola beldurrezko ipuinak entzutea gustatzen. Zuk gustuko al dituzu? Zergatik?*
- *Zer dakizu izar lokei buruz? Azkeneko binetan, Intza, zertan pentsatzen ari dela uste duzu? Bere pentsamenduak ba al du izar lokarekin zerikusirik? Esaerak horrelako zerbait dio: "Eska iezaiozu desio bat izar bati, baina ez utzi lan guztia izarraren esku!". Zer adierazi nahi du horrek? Zuk eskatu al diozu inoiz desiorik norbaiti? Nori? Eta bete al da?*
- *...?*

ERRANAK ERRAN txokoari hasiera eman nahian, elkarrizketa sortuko dugu komikian agertzen diren esamolde batzuen inguruan. Horietariko bakoitzaren esanahia argitu ostean, zein egoeratan erabiliko genukeen ere adostuko dugu. Gero, taldetxoetan egoera horiek antzezteari ekingo diogu. Hauek dira aipatu esamoldeak:
Estimatuta egon. Lerdea dariola egon. Begi txarrez ikusi. Batek jakin. Hara bestea! Hango algara eta komeria! Hori egina zagok/ dago! Ederra egon/izan!

Bukatzean, esamoldeak kartulinatan idatziko ditugu, eta dagokien txokoan itsatsi, gelako edozein elkarrizketaren baitan, egokia den bat edo beste erabiltzeko aukera aprobetxatuta.

Solasaldiaren ostean, pertsonaien banaketa adostu eta talde handian ozeneko irakurketari ekingo diogu, hizkuntzaren baliabideei emango diegu garrantzia.
Komenigarria da ikasleei birgogoratzea arreta berezia jarri beharko diotela elementu prosodikoei (intonazioa, etenak, bolumena...) ozeneko irakurketan, testua zuzen irakurtzeaz gain, doinuaren garrantzia azpimarratuz.

8. Komikia dramatizatzen
Lan egiteko era: Talde txikian

Nahi izanez gero, komikiaren irakurketa dramatikoarekin bukatzean, edo haren alternatiba modura, komikia dramatiza dezakezue. Ikasleek, komikiko egoera antzeztuko dute, baina euren hitzak erabilita, eta tarteka inprobisazio txikiak eginda.

9. Aurre-ezagutzak
Lan egiteko era: Talde txikian/Talde handian
Materiala: Ikaslearen liburua, 8. or.

Jarduera honen bidez ikasleek unibertsoa (unitateko gaia) eta ipuinen (proiektuaren gaia) inguruko aurre-ezagutzak martxan ipintzeko eta partekatzeko parada izango dute. Talde txikietan burutuko dute elkarrizketa, irakasleak elkarrizketaren behaketa egin dezake eta talde-elkarrizketaren dinamikari buruzko hainbat datu jaso (ikus hizkuntzako etapa-bukaerako helburuen eta ebaluatzeko irizpideen dokumentuan elkarrizketari dagozkion alderdiak). Behaketa hori aurre-ebaluazio gisa egingo dugu, gure ikasleek landu beharreko alderdiak detektatzeko saiakera bezala.
Bestetik, talde txikietako elkarrizketa bukatzean, talde handian elkarri azalduko diogu hitz egindakoa. Unibertsoari buruzko gaia 2. mailako laugarren unitatean landu zuten. Ekar dezatela gogora garai hartan egindako proiektua, ikasitakoa, etab.
Ipuinei buruzko aurre-ezagutzei dagokienez, urteetako lanaren esperientzia kontatu ahal izango dute, idatzitako nahiz irakurritako edo entzundako ipuinei buruz hitz eginez. Bukatzeko, argazkiari erreparatuko diogu, ezaguna izango dute, 2. mailako 6. unitatean agertzen zelako. Argazkiak gure tradizioaren zati bat islatzen du, ahozko tradizioa (ipuin eta kondairen kontaketa) eta ohiturena (sutondoaren inguruan familia bildua, zaharrenek ondorengoei euren jakinduria transmititzen), hitz egin ezazue horri buruz ere.

10. Proiektua

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 9. or.

Proiektuaren aurkezpena egiten den orrialdean, bonbilla handi bat agertuko zaizue proposatzen den proiektuaren argibideekin batera. Kasu honetan, unibertsoari buruz ikasitakoetatik abiatuta, ideiak sortzea, ipuinak idaztea, ilustratzea, editatzea eta jendaurrean aurkeztea da proposatzen dena.

Proiektua unitatea landu ahala burutzen joango zaretenez, proiekturako baliagarria izan daitekeenari buruzko argibideak emango zaizkizue hainbat orrialdetan bonbilla txiki baten ondoan. Unitatearen garapenaren azken orrialdean, batzuetan, proiektua gauzatzeko orria aurkituko duzue, bertan bonbilla agertuko da koadernotxoaren bukaerako orriaren barruan, eta horrek proiektuaren azkeneko lanak egiteko unea heldu dela adierazten du. Bonbillaren ondoan, hura burutzeko bete beharreko urratsak ere aurkituko dituzue.

11. Ikasnorabidea

Lan egiteko era: Talde txikian/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 10. eta 11. or.

Ikasnorabidearen funtzioa eta helburua ikasleek ikasten ari direnaz jabetzea da, ikasketa auto-erregulatzeko balio izango dien tresna izatea eta erabiltzea. Landuko dutena aldez aurretik ezagutzeko aukera izango dute, eta landu ostean, ikasitakoari zentzu berria ematekoa. Beraz, joan-etorrian erabiliko dugun tresna izango da, garapeneko jardueretan murgildu aurretik, lehenik, eta atal berri bat lantzera goazen bakoitzean, atala hasi aurretik eta hura bukatzean ikasnorabidera joz.

Unitatean ingurunea, hizkuntza eta arte-hizkuntza arloak era globalizatuan eta integratuan lantzen dira. Ikasnorabideak arlo bakoitzean nagusiki lantzen diren edukien berri ematen digu, atalez atal, atal bakoitzeko kolore ilunaren bidez. Atal horretako kolore argian, berriz, proiektua garatu bitarteko arloetako edukien lanketa modu uztartuan adierazten da.

Unitate bakoitzeko gaiaren sekuentzia tematikoaz jabetzeko, inguruneko atalaren goitik beherako irakurketa egitea aholkatzen dizuegu, eta ondoren, atalez ataleko irakurketa horizontala egitea.

Ikasleek bigarren zikloan antzeko hainbat ikasnorabide ikusi dituzte. Aurtengoak, ordea, aldaketa txiki bat du: bloke bakoitzaren lehen lerroan edukiak arloka banatuta ikusiko dituzte eta azpian horien arteko uztarketaren inguruko informazioa.

12. Txoko zuria

Lan egiteko era: Talde handian

Behin ikasleek argi dutenean zein den egingo duten proiektua eta baita proiektu hori burutzeko ikasi behar dutena ere, txoko zuria hornitzen hasteko unea heldu da. Hau da, taldean hitz egin ezazue bakoitzak gaiarekin zerikusia duen zer elementu izan dezakeen etxean gelara ekartzeko. Materiala ekarri ahala, txokoan jarriko dugu. Komenigarria litzateke ikasle bakoitzak berak ekarritako materiala talde handiari aurkeztea, gela guztiak txokoan dagoenaren berri izan dezan eta erabili dezan behar duenean edo egoki ikustean. Interesgarria da bigarren mailan lau hori lantzerakoan erabili zuten unitatea eta bestelako materiala eskuratzea eta txokoan jartzea.

13. Etxekoentzat informazioa

Lan egiteko era: Talde handian

Aurreko ikasturteetan bezala, hirugarren hilabetea hasten denean, landuko diren gaien sekuentzia adierazten duen eskutitza bidaliko diegu gurasoei. (ikus web-orrian, gidaliburuak, gurasoen atalean). Bide batez, Txoko Zurirako materiala eskatzeko aprobetxatuko dugu. Ikasleei adierazi zein den gutun horren edukia, eta dagoeneko ikasnorabidea pixka bat ikusi dutenez, etxekoei adieraz diezaieten eskatu egingo dugun lanaren nondik norakoa eta Txoko Zuria hornitzeko beharra.

14. Zer da unibertsoa?

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Talde txikian/Binaka

Materiala: Ikaslearen liburua, 12. or.

Unitatearen hasierako jarduerak bukatuta, garapeneko jarduerei ekingo diegu, hau da, gaia atalez atal jorratzeari. Baina ezertan hasi aurretik, ez ahaztu atal horri dagokion ikasnorabideko zatia irakurtzea.

Zer da unibertsoa? Unitate honetako langaia, duda barik, galdera batekin hasiko dugu. Eman iezazkiezue ikasleei minutu batzuk erantzunaren inguruan hausnartzeko eta, ondoren, pentsatutakoa adierazteko. Erantzuna zehatza ematea ez da erraza, eta, gainera, hori ez da helburua, baina interesgarria eta baita dibertigarria ere izan daiteke ikasleek emandako erantzunak entzutea.

Orrialdearen hasieran, J. M. Irigoienen olerkitxoa agertzen zaigu. Taldean irakurri eta interpretatzen saiatuko gara, eta olerkiaren gaiaren, bertako hitzen, esamoldeen eta bestelako irudi literarioen (metaforak) interpretazioa egingo dugu. Horra hen¡men azpian lagungarri gerta dakizuen hainbat ohar:

"Izartegiko gau-loreak"

- Hiztegia: **gau-lore.** *Iz.* (Bot.) Lore zuri, hori edo gorriak dituen landare belarkara eta bizikorra. Jatorriz Hegoamerikakoa, apaingarri modura landatzen da (*Mirabilis jalapa*).
- Metafora: Hizkuntza elementu baten berezko adiera irudizko adiera batera igaro-araztean datzan figura, analogian oinarritua, baina konparazio espliziturik agertzen ez duena. Metafora**: izartegiko gau –loreak** = **izarrak**–.
  "harri eta zur"guztiz harriturik, zur eta lur, harri eta belarri, txundituta, zurtz eginda, aho zabalik, sor eta lor...

Poema abiapuntutzat hartuta, unibertsoari buruz inoiz geure buruari egin dizkiogun galderak gogora ekarriko ditugu, eta horiek eta sortzen zaizkigun berriak ere taldean azaltzeari ekingo diogu. Jarduera honen helburua galderak asmatzea da; ez goaz erantzunen bila, jakin-mina da areagotu nahi duguna, horrek eragingo baitu gaian murgiltzen lagunduko digun motibazioa. Lan hau talde txikietan egin dezakezue, eta, ondoren, talde handian galderen bilketa egin (arbelean kopiatu).

Ondoren datorren unibertsoari buruzko informazioa ikasleek bakarka irakurriko dute, eta berriro ere galdera bera luza diezaiekegu. Zer da unibertsoa? Taldean irakurriko dugu informazioa, behar beste argibide emanez. Bukatzean, tarte bat utziko diegu ikasleei definizioak irakurriz ikas ditzaten eta, binaka, ikasitakoa elkarri ahoz adieraz diezaioten.

15. Familia lexikoak. Astro hitza abiapuntu

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 12. or./9. lan-koadernoa, 3. orrialdetik 5.era/CD-ROMa

Taldean astroak ikertzen dituen zientziari eta zientzialariei buruz luzatutako galderak erantzuteari ekingo diogu. Gero, ikasleek, bakarka, euren lan-koadernoko jarduerak osatuko dituzte. Jarduera honen helburua ikasleek hiztegia informazio-iturri gisa era autonomoan erabiltzen ikastea eta haren erabilpenean trebatzea da. Trebatze-lanak aldez aurretik hainbat kontzeptu argitzea eska dezake, adibidez: hitz baten familiako hitzak, hitzaren erroa eta hitzaren sarrera. Argitu itzazue, bada, kontzeptu horiek ikasleak jarduerak bakarka egiten hasi aurretik. Bukatzean, talde handian elkarri azal iezaiozue egindako lana.

CD-ROMean hainbat ariketa dituzue lexiko-familiak lantzeko.

Oharra: Lan-koadernoko jarduera guztiek liburuko informazioarekin oso lotura estua dute eta baita irakurgaietakoarekin ere. Beraz, ariketa horietako asko osatzeko, ezinbestekoa izango da liburua edo irakurgaiak aurrean izatea. Gogoraraz iezaiezue hori ikasleei, horrelakoetan etxerako lana egiteko zein material behar duten balioetsi dezaten.

16. Ikasleen koadernoa

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 13. or.

Koadernoa, aurten eta datozen urteetan ere, ikaslearen ezinbesteko lan-tresna izango da, sintesirako (definizioak, azalpenak, eskemak, mapak...) nahiz hainbat prozeduratan trebatzeko (grafikoak...) erabiliko dute eta. Horregatik, haren balioaz eta garrantziaz jabearazi behar ditugu, haren erabilpen zuzen eta egokian hezi behar ditugu eta ohitura onak finkatu gure ikasleen artean.

Taldean liburuko aholkuak irakurri eta burura datozkigun beste batzuk aipatu ondoren, koadernoaren erabilpenari dagozkion hainbat alderdi adostuko ditugu.

Baduzue zer hitz egin txukuntasunaren, ulergarritasunaren eta zuzentasunaren inguruan; adibidez, argi dago koadernoan letra ulergarriarekin idatzi behar dela, gauzak gero norbaitek irakurtzeko idazten baitira, irakasleak, beste ikasle batek, gurasoek edota ikasleak berak irakurtzeko. Irakurri beharrekoa ulertzen ez bada, alferreko lana izan daiteke idaztea.

Txukuntasunari dagokionez, idatzitakoaren helburuaren arabera txukunago edota ez hain txukun idatz daiteke, hau da, ikasteko informazioa bada, ikasteko orduan eskertuko dugu txukuntasuna, atseginagoa egiten baita txukun idatzitakoa irakurtzea. Ipuina idazteko bat-bateko ideiak badira orrialde batean idazten ditugunak, edota DVDa ikusi bitartean hartutako oharren bat, ulergarritasunak lehentasuna badu ere, ez du horrenbeste txukuntasunak, eta ezta zuzentasunak ere. Argitu eta adostu itzazue esandakoaren inguruko erabakiak.

Bestetik, zuzentasunari dagokionez, honako hauek ere esan diezazkiekezue ikasleei, zuzentasunaren kezka sustatzeko eta norberak bere idatziak zuzen ditzan:

"Hainbat lan-egoeratan, irakasleen oharren edo aginduen zain egon gabe, zeuk har dezakezu iniziatiba, eta idatzitakoaren zuzentasuna ziurtatu.

- *Testuak beste nonbaitetik kopiatzen dituzunean.*
- *Ortografia-akatsen bat izan dezaketen hitzen aurrean ("s" edo "z" duten hitzetan kasu) sor daitezkeen zalantzak argitzeko hiztegira joz.*
- *Hizkuntzaren erabilera zuzenari buruz aurrez landutako arauak aplika ditzakezun bakoitzean, arau horiek aplikatuz, eta, beharrezkoa izanez gero, egin beharreko kontsultak eginez".*

Behin erabakiak hartu ostean, ikasle bakoitzak bere koadernoa martxan jartzeari ekingo dio, unibertsoa eta astroei buruzko definizioak koadro barruan idatziz. Definizioak idazten hasi aurretik, adostu zer den kopiatu beharrekoa; adibidez, astroen definizioan lehen esaldia da ideia nagusia, jarraian datorrena argibidea besterik ez da. Ikasleekin eztabaidatu hori, argitu, gure aholkua koadernoan lehenengo esaldia soilik kopiatzea da.

17. Bonbilla: Ipuinen sormenerako 1. teknika: "Galderen eta haien erantzunen haritik tiraka"

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka
Materiala: Ikaslearen liburua, 13. or.

Unibertsoaren inguruan sortu diren eta arbelean jaso ditugun galderetatik abiatuz, galdera berriak egitera animatuko ditugu ikasleak: galdera "sortzaileak", "irudimentsuak", "zoroak" (*bat-batean burura datozkizuenak*)...; ipuinerako ideiak sortzeko, asmatzeko helburua dutela azpimarratuko dugu. Galderak egitearekin batera, erantzunak asmatzeko agindua ere emango dugu oraingoan.

Tarterik handiena, talde handian eta ahoz, galderak eta erantzunak asmatzeari emango diogu:

- Hasteko, irakasleak berak eman ditzake hainbat eredu (liburuan daudenen bidetik).
- Ikasleak biribilean jarririk, batek galdera bat eta ondokoak erantzun posibleak asmatuz, hainbat erronda egin daitezke.

Azken tartea ikasle bakoitzak aukeratzen dituen ideiak koadernoan idazteari eskainiko diogu (*Galderen eta erantzunen haritik tiraka bururatzen zaizkizun ideien artetik gustukoenak, erakargarrienak, dibertigarrienak, irudimentsuenak... idatz itzazu koadernoan*). Eredu argia eman hori nola egin dezaketen ikusarazteko. Talde handian sortu diren ideien artetik aukera ditzake bakoitzak bere ipuinerako ideiak, edota bururatzen zaizkion ideia berriak ere jaso ditzake koadernoan.

18. Nola sortu zen unibertsoa?

Lan egiteko era: Talde txikian/Talde handian/Bakarka
Materiala: Ikaslearen liburua, 14. or./Irakurgaiak 5, 6. orrialdetik 9.era/9. lan-koadernoa, 6. eta 7. or.

Har ezazue tarte bat ikasnorabidera joan-etorria egiteko.

Talde txikietan, liburuan proposatzen zaizkigun galderak abiapuntu, elkarrizketa sortuko dugu, teoriari, mitoei edo kondairei eta unibertsoaren sorrerari buruzko aurre-ezagutzak martxan ipintzeko. Talde txikietan hitz egindakoa talde handian elkarri azalduko diogu, talde bakoitzetik kide batek bozeramaile lana eginez.

Adi ibili aurre-ezagutzekin. *Teoria* eta *mito* hitzen kontzeptualizazio erabat okerra izaten dute haurrek. Eurentzat *teoria* hitza ustezko, balizko, imajinaziozko pentsamenduekin loturik egoten da. Ez diote balio zientifikoa ematen. Saiatu jarduera honen bidez mitoaren edo kondairaren eta teoria zientifikoaren arteko bereizketa kontzeptualera hurbiltzen.

Jarduera honen helburua, ikasleak unibertsoaren sorrerari buruzko hainbat mito eta teoria daudela eta horien artean onartuena Big-Bang-aren teoria dela jabearaztea da eta ez doktrina jakin bat edo beste irakastea, erlijio ezberdinen eta zientziaren ikuspuntuaren arteko bereizketa egitea baizik. Horretarako, lau testu irakurriko dituzte, bi teoria eta bi mito kosmogoniko, unibertsoaren eta gizakiaren sorrerari buruzko mito eta teoria bana. Lau testu horiek jarraian irakurtzeak sor dezakeen asperdura eta, agian, motibazioa galtzea saihesteko asmotan, gelan irakurri Big-Bang-en teoria eta irakurgaietako Bibliako kondaira. Lehenengo, ikasleek bakarka, eta ondoren, talde handian. Bukatzean, irakurritakoari buruzko elkarrizketa eragingo dugu:

- *Gaiari buruz hitz egiteko: Zein da testu bakoitzaren gaia? Nola azalduko zenukete, ahoz eta laburki, testu bakoitzak adierazten duena? Ezagunak al zenituzten?*
- *Testu motei buruz hitz egiteko: Modu berean ematen al dute informazioa bi testu horiek? Zure ustez zein testu mota da horietariko bakoitza?*
- *Bi testu horien artean zuretzat zein dela uste duzu fidagarriena edo egiazkotasun handiena duena? Zergatik?*

Irakurgaietako beste mitoa eta teoria etxean lasai-lasai irakurtzeko proposatuko diegu, irakurtzeko helburua aurreko bi testuen berbera izango da, hurrengo egunean galdera berberak luzatuko dizkiegula jakinaraziko diegu. Biharamunean, bezperan egindakoa gogora ekarri eta hurrengo biak irakurtzeari ekingo diogu taldean. Ondoren, ikasleek, liburuak aurrean dituztela, lan-koadernoko jarduerak osatzeari ekingo diote. Azken jarduerak irakaslearen azalpenak eman ostean burutzeko direla esatean, ikasleak teoria horrek esan nahi duena ulertu duela ziurtatu nahi dugu. Horretarako, beharrezkoak diren azalpenak edo argibideak eman beharko dituzue, keinu edota irudiekin lagunduta.

BIG-BANG

Unibertsoaren sorrerari buruzko teoria onartuena da. Teoria honek dioenez, unibertsoko materia guztia gune bakar batean bilduta zegoen eta duela 15.000.000.000 urte inguru eztanda egin zuen eta materia hori unibertsoan zehar zabaldu eta sakabanatu egin zen. Materia horretatik sortu ziren, beranduago, galaxiak, izarrak eta planeta sistemak. Teoria horren arabera, gaur egun unibertsoa hedatze-fasean dago oraindik.

Ikasleek lan-koadernoan teoria horren inguruan idatzitakoa koadernoan bertatik ikasteko kopiatuko dutenez, teoria ulertu dutela eta zuzen (teoriak adierazten duena adierazi dutela) adierazi dutela ziurtatu beharko duzue; beraz, eurek egindako zuzenketaz gain, zeuok beharrezko ikusten dituzuenak ere bidera itzazue.

Jarduera-sekuentzia hau bukatzean, elkarrizketa bultzatuko dugu ikasleei galdetzeko ea ikasnorabidean adierazitako xedea bete dugun ala ez. Hala balitz, detekta ezazue zer den behar beste landu ez dena, eta ekin iezaiozue lan hori hobetu eta sakontzeari.

19. Entzunaldia

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: CDko entzunaldia, 2. pista

Ziklo honetan ere, ikasleek Urtxintxarekin hasi zuten bideari jarraituz, musikako entzunaldiak lantzeari ekingo diogu. Horregatik, une egokia da hau gure konpositoreen txokoa martxan jartzeko. Bertan, urtean zehar landutako entzunaldiei buruzko informazioa itsatsiko dugu. Gure konpositoreen txokoan jarriko ditugun datuak honako hauek izango dira batik bat:

- Konpositorearen izena, argazkia eta biografia.
- Entzunaldiaren izenburua.

GURE KONPOSITOREEN TXOKOA

Unitate honetan, Gustav Holst-en "Los planetas" obraren bi atal labur dituzue, "Saturno" eta "Urano". Bila ezazue konpositoreari buruzko informazioa (Internet ere erabiltzea komenigarria da), eta, taldean irakurri ostean, jar ezazue gure konpositoreen txokoan haren argazkia eta biografia. Jarduera honen helburua hainbat musika mota eta konpositore klasiko nahiz moderno euskaldun edo internazionalen inguruko informazioa ematea da, eta inolaz ere ez ikasleei informazio hori buruz ikasaraztea.

Ondoren, obraren izenburuen inguruan mintzatzeko elkarrizketa eragingo dugu:

- *Izenburuari erreparatuz, zer musika mota imajinatzen duzue entzungo dugula? Zer instrumentu mota erabiliko dituela?*

Jarraian, musika entzuteari ekingo diogu, lurrean etzanda eta begiak itxita. Gero, elkarrizketa bultzatuko dugu, izenburuak iradokitakoaren inguruan egindako iragarpenez hitz egiteko (bete dira, ez dira bete?). Horren ostean, entzundakoaz mintza gaitezke, gustukoa izan dugun, zertarako erabiliko genukeen musika mota hori, zer instrumentu entzun ditugun, zer adierazteko erabili den horietariko bakoitza...

20. Big-bang eztanda dramatizatzen

Big-Bang-aren teoriak adierazten duena musikaren erritmoari jarraituz dramatizatzeari ekingo diogu. Taldean hitz egin ezazue nola egin dezakezuen lan hori, zer mugimendu adierazkor erabil ditzakezuen... Ideia bat egin dezazuen, gelako espazioa unibertsoa izan daiteke, gutariko bakoitza materia zati bat, gune batean bilduko dena, gelaren erdialdean bata bestearen gainean, erdi makurtuta, hutsuneak betez, indarrez, pilaketaren ondorioz leherketa eman arte... Kaosetik ordenara pasatu behar dugu. Lagungarri izan dakizueke musika zatika entzutea eta memento bakoitza taldean nola dramatiza dezakegun adostea.

21. Zientzia, zientziak eta zientzialariak, sormena, arteak eta ikas-arloak

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 15. eta 16. or./Irakurgaiak 5, 10. eta 11. or.

Orrialde hauetan, zientziari eta zientziei buruzko informazio txiki bat ematen da. Horren helburua zientziari eta zientziei buruzko informazioa luzatzea da, irakurritakoaz hausnartzeaz gain, gure ikasgaiekin erlazionatzeko. Beraz, taldean landuko dugu, betiere, irakaslearen argibide eta laguntzarekin.

Orrialde honetan, mundu-mailan ospetsuak diren zientzialarien argazkiak eta izenak agertzen zaizkizue; anima itzazue, bada, ikasleak hiztegi entziklopedikoan nahiz sarean (hartara informazio-bilaketan trebatuko dira) horiei buruzko informazioa bilatzera, jakin dezaten zerk egin zituen hain ospetsu zientzialariok.

Irakurgaietan, euskal zientzialari ospetsu batzuei buruzko testua duzue. Ikasleei bakarka irakurtzeko tarte bat eman ostean, irakur ezazue taldean liburuan dituzuen Etxenikeren hitzak. Gero, bultza ezazue elkarrizketa sormenaz eta zientziaz hitz egiteaz gain, arte-adierazpenaz eta arteaz hitz egiteko ere, bukatzeko, gure ikas-arloekin erlazionatuz.

Lexiko-gaitasuna aberasteko aukeraz ere balia gaitezke, zientziari eta zientzialariei buruzko testu horiek irakurri ostean, gaiarekin zerikusia duten hiztegia landuz.

- Aipatzen diren zientzien izenak zerrendatu (*astronomia*...).
- Zientzia horietan aditua den pertsonari ematen zaion izena aurkituz edo ondorioztatuz (*astronomoa*...).
- Zientzia bakoitzak aztergai duen gaia ondorioztatu, testuinguruak ematen dituen datuetan oinarrituz:

Testuak dio J. M. Barandiaranek "ikerketa etnologiko garrantzizkoak egin" zituela eta "euskaldunon ezaugarriak aztertu" zituela. Zer ote da etnologiak aztertzen duena? (etniak edo antzeko ezaugarriak dituzten pertsonek osatutako giza taldeak).

- Zientzia bakoitzak aztergai duen gaia hiztegiaren laguntzaz aurkituz:

fisika	fisikari	naturako fenomenoak (argia, soinua, elektrizitatea...)
medikuntza	mediku	gaixotasunak
astronomia	astronomo	astroak
mineralogia	mineralogo	mineralak
kimika	kimikari	naturako substantziak
paleontologia	paleontologo	fosilak
arkeologia	arkeologo	antzinako zibilizazioak
geologia	geologo	Lurra, bere egitura eta osaketa
botanika	botanikari	landareak
entomologia	entomologo	intsektuak
naturalista	**natur zientziak** (biologia, fisika, geologia, kimika, zoologia...)	natura
antropologo	**antropologia** gizakia eta giza taldeak	

22. Prentsa txokoa

Lan egiteko era: Talde handian

Irakurgaietako Etxenikeren testua aitzakia, prentsa txokoa martxan jarriko dugu. Txanelak eguneko egunkaria gelara ekartzeko proposamena luzatzen dizue, eta egunekoa ez bada ere, ondo legoke aurreko egunetakoak ekartzea. Kontuak kontu, prentsa txokoak egunkariz hornitua egon beharko luke, proposamen hori bideragarria izateko.

Egunero pare bat ikaslek egunkaria aztertu eta gaiarekin zerikusia duen berriren bat bilatzen saiatuko dira. Ikasleetako batek egunkariko eguneko gai nagusiak zein diren aipatuko die gelakideei. Besteak, berriz, gaiarekin zerikusia duen berriaren berri emango du ahoz.

Tarteka, txoko hori era ludikoan erabiltzeko, ikasle horiek lau titular aukeratuko dituzte: batek gure gaiarekin zerikusi zuzena izango du; besteek, nahiz eta eguneko gai nagusiak izan, ez dute zerikusirik izango lantzen ari garen gaiarekin. Bi lagun horiek gelakideei titularrak aurkeztu ostean, gelakoek lantzen ari garen gaiarekin zerikusia duena zein den asmatu beharko dute.

23. Prentsako berriak sormen-iturri

Lan egiteko era:Talde txikian/Talde handian

Astronomiarekin eta espazioarekin zerikusia duten berrien titularrek aukera politak eman ditzakete ipuinerako ideiak sortzeko. Ondoren duzu, irakasle, sormen-prozesu hori bideratzeko eredu bat. Eredu horri jarraiki, zeuk gida dezakezu prozesua lehen une batean, eta, ondoren, ikasleak teknikaz jabetu direla iruditzen zaizunean, talde txikietan egin dezakete lan. Horrelako saio bat baino gehiago ere egin daiteke, eguneko albisteen kontaketa eta titularrekin egiten diren jolasak baliatuz. Saio bakoitzaren ondoren, tarte bat eskaini beharko litzaieke ikasleei sortu diren ideiak, gehien gustatu zaizkienak, euren koadernoan idatz ditzaten.

Albiste titularretatik (titulu eta azpi-tituluetatik) ipuinetarako ideiak nola sortu

Zein istorio ezkuta daiteke titular hauen atzean? Jarri martxan sormenaren makina eta ea zer bururatzen zaizun.

(Berria, 2005eko azaroaren 9a)

“Venus Express”: Europaren lehen abentura Lurraren ahizpa bikira
Okerrik ezean Artizarreko bidean izango da Europako Espazio Agentziaren espazio zunda

- *Lurrak ahizpa bikia du, baina elkarrengandik bananduta daude, ez dute elkar ezagutzen. Zergatik?*
- *Europa neska abenturazale bat da, arriskua eta ezinezkoak diruditen balentriak maite dituena. Oraingo honetan, Lurrari lagunduko dio Venus, bere ahizpa bikia, aurkitzen, baina, horretarako, bidaia arriskutsu bati aurre egin beharko diote, sorpresaz beteriko “Venus Express” tren galaktikoan.*

-...

(Berria, 2005eko azaroaren 2a)

Plutonek beste bi ilargi dituela hauteman dute

Planetak lagun bakarra zuela uste zen, “Hubble”-ren irudiak aztertu arte

- *Plutonek ezkutuan gorderik zituen bere bi ilargiak Hubble detektibe begiluze eta kuxkuxeroak aurkitu, eta guztiei bere berri eman zien arte. Baina dena ez zen hor bukatuko, ez horixe. Plutonek mendekua hartzea erabaki zuen eta...*

-...

(Berria, 2005eko azaroaren 4a)

Lehen izarren dirdira hauteman dutela diote astronomoek

Zulo beltz erraldoia aurkitu dute zientzialari txinatarrek Esne Bidea galaxiaren erdian

- *Erraldoi bat EB-1 errepide nagusitik (Esne Bidearen Autobidea izenez ere ezagutzen da errepide hau) doa bere auto estreinatu berrian poz-pozik. Bat-batean, argi dirdiratsu eta itsugarri batek ez dio aurrean duena ikusten uzten eta errepide erdi-erdian dagoen zulo beltz batera erortzen da. Eskerrak zientzialari txinatar talde bat datorrela bere atzetik...*

24. Bonbilla: Ideiak sortzeko 2. teknika: Zientziarekin eta artearekin zerikusia duten hitzekin pertsonaiak eta egoerak sortzen

Lan egiteko era: Talde txikian/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 16. or.

Jarduera hau hiru laguneko taldeetan burutuko dugu, liburuan proposatutakoaren arabera. Oraingoan, zientziarekin eta artearekin zerikusia duten hitzetatik abiatuta, pertsonaiak eta egoerak sortzeari ekingo diote. Gero, taldeko bozeramaileak talde handiari ideien berri emango dio. Bukatzeko, ikasle bakoitzak ideia horietatik guztietatik gustukoenak edo egokienak irizten dituenak bere koadernoko ipuinerako ideien orrialdean kopiatuko ditu.

25. Unibertsoan, galaxiak

Lan egiteko era: Binaka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua,17. or./9. lan-koadernoa, 8. orrialdetik 10.era

Hasteko, orrialde horretako goiko aldean dagoen grafiko inklusiboari erreparatuko diogu eta horren inguruan hitz egiteko elkarrizketa sortuko.

Jarduera hauek guztiak, lan-koadernoko 10. orrialdea izan ezik, ikasleek, testuak eta ariketak bakarka irakurri ondoren, binaka landu eta osatuko dituzte. Bikoteak, ikasleen ezaugarriak kontuan izanik, irakasleak berak osatuko ditu, komenigarria da antzeko lan-erritmoa eta ulerme-maila duten ikasleak elkarrekin jartzea.
Bukatzean, egindako lana talde handian elkarri azalduko diote.

Ziklo honetan, ikasleek informazio ugari jaso eta modu batean baino gehiagotan adierazten jakin behar dute. Ikasteko moduak ezberdinak diren bezala, horri buruzko informazioa eskatzeko moduak ere ezberdinak izan daitezke, eta horiek aztertzeari eta lantzeari ekingo diogu. Oraingoan, galaxiei buruzko informaziorekin trebatuko gara. Hura irakurri eta kontzeptuen maparen bidez adieraziko dugu. Ondoren, lan-koadernoan adierazten diren urratsei jarraituz, informazio hori ahoz eta idatziz emango dugu.

GALAXIAK

1. Non daude? UNIBERTSOAN.
2. Zer dira? IZAR MULTZO ERRALDOIAK.
3. Zeren arabera sailkatzen dira? FORMAren arabera, nolakoak izan daitezke? KIRIBILAK-ELIPTIKOAK-MARRADUNAK-IRREGULARRAK.
4. Zein da gurea? ESNE BIDEA. Zer forma du? KIRIBILA.

Behin galaxien inguruko informazioa argi geratu dela ziurtatuta, ikasleek, binaka, lan-koadernoko 10. orrialdeko ariketak egingo dituzte. Lehenik, kontzeptuen mapa aurrean dutela, lagunari informazioa ahoz adierazi behar diote, eta gero, informazio hori bera idatziz adierazi behar diote lan-koadernoan.

Idatzi berri duten testua norberak berrikusi eta egoki iritzitako zuzenketak egin ostean, bikoteak gure lanaren bigarren berrikusketa egiteari ekingo dio, bere balorazioa edo zuzendu beharrekoak ahoz adieraziz eta inola ere ez besteen lanaren gainean eskua sartuz.

Jarduera honetan, informazioa adierazteko, gogoratzeko eta ikasteko modu ezberdinak erakutsi ditugu. Ikasle bakoitzak berarentzat helburua lortzeko baliagarria dena aukeratu du eta informazioa bere koadernoan bilduko. Ikus ezazue edo gogora ekarri, talde handian, ikasteko informazioa nola gorde behar den koadernoan.

26. Galaxietan, izarrak. Semantika. Izar hitza abiapuntu

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 18. or./9. lan-koadernoa, 11. orrialdetik 13.era/CD-ROMa

Izar hitza aitzakia, hiztegi motak (paperezkoak nahiz elektronikoak, izaera ezberdinekoak: entziklopedikoak, sinonimoena, euskara-erdara...) ezagutzen saiatuko gara, aztertzen eta erabileran trebatzen.

Gelan, ikasleen eskura, komenigarria da honako hiztegi mota hauek izatea: hiztegi entziklopedikoa, euskara-erdara hiztegia, sinonimoena. Bakoitzetik ale bat baino gehiago balego, hobeto. Horiez gain, ikasleen adinari egokitutako euskara-euskara hiztegi bat ere ezinbesteko lan-tresna izango da. Liburuan nahiz lan-koadernoan hiztegi-artikuluak eta definizioak txertatu ditugunean, honako hiztegi hauek erabili izan ditugu, nagusiki:

- *Ikaslearen hiztegia*, ELHUYAR-ELKARLANEAN
- *Nire lehen hiztegia*, ELKAR
- *Hiztegi entziklopedikoa*, KLAUDIO HARLUXET FUNDAZIOA

Gelako eta ikastolako liburutegiko hiztegiei behatu eta horiek aztertu ostean, hiztegi elektronikoen bilaketa eta behaketa ere egitea proposatzen dizuegu. Hona hemen oso erabilgarria izan dakizuekeen helbidea: www.hiztegi.net. Bertan mota eta hizkuntza ezberdinetako hiztegi elektronikoak aurkituko dituzue.

Hasteko, olerkia irakurri eta interpretatzeari ekingo diogu.

Zer ote dira "hosto erorkorretako bonbillak"?

Ondoren, *izar* hitzari dagokion hiztegi-artikulua duzue orrialde honetan. Hura aztertu ondoren, ematen den informazioa taldean interpretatuko duzue. Normalean, hiztegi-liburuen hasieran edo bukaeran ematen den informazioa, laburdurei eta hiztegiaren bestelako ezaugarriei buruzkoa, balia dezakezue horretarako.

- *Belzturik ageri dira, kasu honetan,* ***sarrera*** *(hiztegi-artikuluari sarrera ematen dion hitza) eta* ***azpisarrerak****, sarrerarekin osatutako beste hitz konposatu edo esamoldeak.*
- *Zenbakiak hitzaren adiera bakoitza, esanahi bakoitza, txertatzeko erabiltzen dira.*
- ***(Astron.)*** *laburdurak, ondoren datorren adiera edo esanahia, hitzak jakintza-arlo horretan, astronomian, hartzen duena dela adierazten du.*
- ***(herr.)*** *laburdurak, nahiz eta hitzaren jatorrizko esanahia ez izan, ondoren datorrena herri-mailako hizkeran ematen zaion esanahia dela adierazten du, normalean idatziz erabiltzen ez dena.* ***(hed.)*** *laburdurak (hedaduraz) ere antzeko zerbait adierazten du: nahiz eta berezko esanahia ez izan, ondoren datorren adierarekin asko erabili ohi dela, alegia.*

Hiztegi-artikuluak zer diren eta nola erabiltzen diren ikasteaz gain, izar hitza *polisemikoa* denaz jabetuko gara. Hortik abiatuta, ikasleek lan-koadernoan duten hitz polisemikoei buruzko sekuentzia bakarka osatzea proposatzen dizuegu, eta, bukatzean, taldean elkarri azaltzea egindako lana. Jarduera horien bitartez, esanahi bateko baino gehiagoko hitzen esanahi zehatza testuinguruari erreparatuz interpretatzen trebatu nahi ditugu ikasleak.

Gogoratu CD-ROMean hainbat jarduera dituzuela, sinonimia, antonimia eta polisemia lantzeko.

27. Bonbilla. Ideiak sortzeko 3. teknika: Binomio fantastikoak osatzen hitzen polisemiatik abiatuta

Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian

Materiala: Ikaslearen liburua, 18. or.

Ipuina egiteko ideiak sortzen jarraitzeko, 3. sormen teknika jarriko dugu martxan. Oraingoan, hiztegiko hitzen adierak izango ditugu lehengai. Harreman zuzenik ez duen adiera horietako pare bat elkartuz eta irudimena aske utzita, ideia berriak sortzeari ekingo diete ikasleek talde txikietan. Gero, talde txiki bakoitzeko bozeramaile batek talde handiari emango dio sortutako ideien berri. Bukatzeko, ikasle bakoitzak ideia horietatik guztietatik gustukoenak edo egokienak irizten dituenak bere koadernoko ipuinerako ideien orrialdean kopiatuko ditu.

28. Izarrak

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 19. or./9. lan-koadernoa, 15. eta 16. or.

Taldean izarrei buruzko testua irakurriko dugu. Testu horretako informazio garrantzitsuena ikasleek koadernoan bildu beharko dutenez, lan hori nola burutu jakiteko, bakarka, lan-koadernoko jarduera osatzeari ekingo diote (dena, azkeneko jarduera izan ezik, laburpena osatzearena, hori talde handian elkarri azaldu eta berrikuspena egin ostean egingo baitute). Lan-koadernoan, testu bateko informazio garrantzitsuena aukeratzen eta antolatzen da eta biltzeko urratsak eta azalpenak ematen dira. Testu osoko gaia eta paragrafo bakoitzeko gaiak bereizten ikasiz. Bukatzean, jarduera talde handian berrikusi eta zuzenduko dugu. Horren ostean, ikasleek laburpena idazteari ekingo diote eta baita egindako lana koadernoan biltzeari ere.

Aurrerantzean, informazioa eskaintzen duen testu bat agertzen den bakoitzean, testuko eta paragrafoko gaiaren identifikazioaz ikasi berri dutena praktikan jarri eta trebatzeko proposamena egingo diegu ikasleei.

- *Zein da testu osoaren gaia? Zein paragrafo bakoitzarena?*
- *Osatu: "Testu honen gaia ..... da eta bertan ..... azpigaiei buruzko informazioa eskaintzen da".*

Oharra: Dagoeneko hainbat informazio dute bilduta koadernoan, buruz nahiz euren hitzak erabiliz, ahoz nahiz idatziz azaltzen jakin beharrekoa. Beraz, lantzean behin, gelan bertan eskain iezazkiezue tartetxoak, informazio hori begiratzeko, irakurtzeko, errepasatzeko, lagunari kontatzeko... jakin beharreko horretan trebatzeko, alegia.

29. Unibertsoaren handitasunaz jabetzen: argi-urtea (Jarduera hau ez da ebaluaziorako behagarria)
Lan egiteko era: Talde handian
Materiala: Ikaslearen liburua, 19. or.

Izarren eta unibertsoaren handitasunaz jabetzea da ondorengo jardueraren helburua, eta ez horko kontzeptuak ikastea. Ulermen-lana ez da erraza; horregatik, taldean eta irakaslearen laguntza handiarekin egitea proposatzen dizuegu. Hemen azpian dituzue jarduera osatzeko behar dituzuen datu batzuk:

* 1 argi-urte = 9.460.700.000.000 km //// Argi-urtearen neurria biribilduta, 10 bilioi kilometro ingurukoa da.
* Bigarren ariketa zeharo irudimenezkoa dela argitu ikasleei, argiak ez baititu birak ematen, zuzen proiektatzen da.

Unibertsoaren handitasunaz jabetu ostean, Eguzkiari eta izarrei buruzko informazioa irakurri eta olerkiarekin erlazionatuz, horien interpretazioa egingo dugu.

30. Olerkiak eta pertsonifikazioa
Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka
Materiala: Irakurgaiak 5, 12. or./9. lan-koadernoa, 14. or.

Lehenik, bakarka eta ondoren, taldean, irakurgaietako olerkiak irakurtzeari ekingo diogu. Landu itzazue, beraz, baliabide prosodikoak (irakurketa dramatikoa izan dadila; esan ikasleei doinuak, intonazioak eta erritmoak berak ere entzuleari olerkiaz gozatzen eta horiek errazago interpretatzen ere laguntzen diotela). Nahi izanez gero, olerkien inguruko elkarrizketa sor dezakezue, zein gustatu zaigun gehien eta zergatik aipatzeko.

Pertsonifikazioa zer den argitu ondoren (lan-koadernoko orrialdeko hasierako informazioa denon artean irakurri eta komenta daiteke), irakurgaietako olerkietan dauden pertsonifikazioak identifika daitezke: “argiak argiari irribarre”, “ilargiak zinbili-zanbulu”.

Lan-koadernoan egin beharreko jarduera taldean argitu ondoren, ikasleek jarduera bakarka osatzeari ekingo diote. Lana bukatzean, ikasleek euren ekoizpena (ipuin laburtxoa) taldeari irakurriko diote, oraingoan ere irakurketa dramatikoa eginez.

Gogoratu ipuinak sortzeko erabiltzen dugun edozein teknika, sormenerako baliabideak edota informazioa, ipuinen txokoan jartzea oso baliagarria suerta dakiekeela behar dutenean erabiltzeko. Pertsonifikazioa izan daiteke esandakoaren adibidea.

31. Konstelazioak

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian
Materiala: Ikaslearen liburua 5, 20. eta 21. or.

Lehenik, bakarka (gelan nahiz aurreko egunean etxean) eta ondoren, talde handian, konstelazioei buruzko informazioa irakurri eta irudiak behatzeari ekingo diogu. Konstelazioak zer diren argitu ostean, definizioa koadernoan kopiatuko dugu.
Ondoren, konstelazioen informazioa osatzera datorren testutxoa duzu; azal iezaiezu ikasleei.

Ipar hemisferioko planisferioa

Oinaren azalpena: Ekuatorea izeneko lerro irudikariak Lur planetaren esfera bitan banatzen badu, goiko zatiari ipar hemisferioa deitzen diogu eta behekoari hego hemisferioa. Planisferio horretan, ipar hemisferioan dauden herrialdeetatik (Euskal Herritik, adibidez) zeruari begiratuz gero, ikus daitezkeen izarrak dira irudikatuta daudenak.

Jarduera honen bukaeran adierazi bezala, proposa iezaiezue ikasleei asteburuan gurasoekin batera zeruaren zuzeneko behaketa egiteko. Astelehenean, esperientziak elkarri kontatzeari ekin diezaiokezue eta, bide batez, ahozkoari dagozkion hainbat irizpide azter ditzakezue.

32. Liburu artean I. *Pertseo eta Medusaren burua*

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka
Materiala: Ikaslearen liburua, 21. or./Irakurgaiak 5, 13. orrialdetik 18.era

LIBURU ARTEAN konstante bat izango da Txanelako unitate guztietan. Konstante horren helburu nagusia ikasleek irakurketa eta, bereziki, literatura eremuko testu eta liburuen irakurketa atseginerako iturri bezala erabil dezaten lortzea da. Horretarako, unitatez unitate hainbat liburu aurkeztuko da, eta liburu horien inguruan hainbat irakurketa-proposamen egingo dira, irakurzaletasuna sustatzeko teknika edo estrategia zehatzak eskainita. Lehenengo unitate honetan, bi dira konstante horren baitan bildutako proposamenak.

Konstelazioei greziar astronomoek emandako izenen komentariotik abiatuta, *Pertseo eta Medusaren burua* (ELKAR, 2002) liburua aurkezten da. Ez da, gure ustez, adin honetako ikasleek erraz irakur dezaketen testua. Beraz, irakasleak irakurtzea proposatzen dugu, ozen, egunero tartetxo bat eskainiz kapitulu edo atal baten irakurketari (19 kapitulu dira guztira). Horrela, irakasleak ulermenerako hainbat estrategia nola aplikatu irakuts dezake, testua irakurri ahala berak praktikan jarriz eta nola egin duen ikasleei azalduz; esate baterako, ulertzeko zailtasunen bat izan dezaketen hitzen esanahia argitzeko, hitzaren osaketan eta testuinguruko informazioan nola oinarritu.

"Danaek seme bat izan zuen eta Pertseo deitu zion. Pertseo oso txikia zela, gaiztagin batzuek..." (1. atalean, 11. orrialdean.) *Zer da gaiztagin bat? Beste zein hitzekin erlazionatzen duzue? "Gaizta" eta "gin". "Gaizto" hitzarekin osatuta*

dagoela iruditzen zait niri. Eta "gin" atzizkiarekin. Pertsona gaiztoa, gaiztakeriak egiten dituena izan daiteke gaiztagina. Ez zaizue zuei horrela iruditzen? Jarrai dezagun irakurtzen, ea testuinguru horretan, ondorengo informazioak, nire uste hau baieztatzen laguntzen digun.

"...gaiztagin batzuek kutxa baten barruan sartu zituzten ama-semeak, eta itsasora bota". *Gaiztagin horiek egindakoa benetan gaiztakeria bat da, ezta? Beraz, hipotesi zuzenak egin ditugu gaiztagin hitzaren esanahiaren inguruan. Ikusi al duzue batzuetan nola ondoriozta daitekeen hitz ezezagun baten esanahia hitz hori nola osatuta dagoenari behatuz, eta testuinguruko informazioan oinarrituz?*

Irakurraldi bakoitzaren ondoren, kapituluaren ulermen orokorra ziurtatzeko eta hurrengo atalaren inguruko interesa suspertzeko, bi galdera hauek (edota antzekoak) egin ditzake irakasleak:

- ***Zer gertatu da kapitulu honetan?*** *Nork konta dezake hitz gutxitan? Zer iruditu zaizue? Zuek zer egingo zenuketen?...*
- ***Zer gertatuko dela uste duzue hurrengo kapituluan?*** *Hau da hurrengo kapituluaren izenburua:...* (Izenburua eman ikasleei.) *Nola jarraituko du kontakizunak? Zer egingo du protagonistak? Lortuko al du...? Bota zuen hipotesiak; ea zeinek asmatzen duen. Horrela den ala ez jakin nahi baduzue, bihar arte itxoin beharko duzue. Orain, atera matematikako liburuak...*

Irakurraldi bakoitza hasi aurretik, ikasle bati eska diezaiokegu ordura arte gertatutakoa hitz gutxitan gogora ekartzeko. Irakurriko den kapituluaren inguruan aurreko egunean egindako hipotesiak ere gogora daitezke irakasleak irakurketari ekin aurretik.

8. eta 9. kapituluak *Irakurgaiak* liburuan eskaintzen dira. Irakurketaren une honetara iristean, ikasleek eurek irakur ditzakete bi atalok. Txandaka, ikasle bakoitzak berari egokitu zaion zatia irakur dezake ozen, gainerakoek isilean irakurtzen duten bitartean. Orrialde bakoitzaren amaierara iritsitakoan, aurrera jarraitu aurretik, gorago aipatutako galdera horiek berak egin daitezke, esan bezala, irakurritakoaren ulermena ziurtatzeko eta datorrenari buruzko hipotesi berriak egiteko.

LIBURU ARTEAN konstanteko proposamen bakoitza gelako nahiz ikastolako liburutegien baitan egiten diren jarduerekin lotuko dugu; konstantearen inguruko proposamenek liburutegiaren erabilerari eta antolaketari bultzada eman diezaioten ahaleginduko gara. Kasu honetan, ikastolako liburutegi nagusia azter daiteke Greziako kontakizun mitologikoak biltzen dituzten liburuen bila, eta bakarren bat aurkituz gero, gelako liburutegira ekarri, ikasleek eskura izan dezaten, nahi badute irakurtzeko.

33. Ingelesa: Zodiac. Ingeleseko proposamena

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 22. eta 23. or.

Jarduera honetan, zodiakoaren konstelazioen inguruan arituko gara. Taldeka konstelazio bakoitzaren izar multzoak lotuz, irudi eta izen berri bat asmatuko dute beren konstelazioarentzat. Ondoren, izar multzoak lotuz, sortutako irudiak gelako paretetan jarri eta asmatutako izen guztiak zerrendatuko dituzte. Ikasleak, irudiei begira, izen bakoitza dagokion konstelazioarekin lotzen saiatuko dira.

Procedure:

- Ask the pupils what they have been working on.
- Planetarium. Constellation map. Picture of bear.
- Ask them if they recognise any of the stars in the sky. The first one to appear is actually the planet Venus. When the stars are clustered together they have names. We are going to look at some of them; the ones with the names of the zodiac.
- Ask if it is any one's birthday that day, week, month. So Jon's birthday is on the 3rd of October. Do you know your birthdays. Check that everyone knows how to say their birthday.
- Ask them to line up according to their birthday. Model the language they will need. – *When is your birthday?*
  - *It's in February*
  - *What date?*
  - *On the 25th February.*
  - *You are before me.*
  - *You are after me.*
  -
- When they have lined up, check their birthdays.
- Ask them if they know their star sign; their sign of the zodiac.
- Give each group their star sign in English and get them to pronounce it properly.
- Get them sitting in star sign groups. If you only have a one in a group, see if they want to work alone or join another group.
- When they are sitting together, get them to look at the book. Ask them to find their star constellation.

- Give an example of what they have to do. Draw the stars from ursa minor on the board and join them up. E.g. to look like a kite.

- Tell them to copy the stars onto their sheet. Together they have to decide how to join them up and what to call the constellation.

- Go around helping with ideas, spelling etc.

- You can display the constellations on the wall. Ask each group to come up to the board and write the name they've invented for their constellation so that all the names are listed on the board. The pupils copy them and go around trying to identify the constellations.

ZODIAC NAME: .....

NAME OF CONSTELLATION

34. Unibertsoko fenomeno bitxiak. Bonbilla: Ideiak sortzeko 4. teknika: Misterioa eta elkartasuna, ideien iturria

Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian

Materiala: Ikaslearen liburua, 24. or.

Jarduera honetan, unibertsoko fenomeno batzuen berri ematen da. Helburua ez da horiek zer diren buruz ikastea, existitzen direla jakitea eta horien inguruko misterio-kutsu horretatik abiatuz, ipuinerako ideiak sortzea baizik, eta kasu honetan, ipuinen eskenatokiak, istorioen gorabeherak gertatuko diren tokiak imajinatzea. Beraz, jarduera taldean irakurriko dugu, eta emandako urratsei jarraituko diegu.

Horrez gain, esaera zahar bat dago orrialde honetan: "zenbat buru hainbat aburu". Taldean argitu ezazue esaera horren esanahia, eta kopia ezazue "Erranak erran" txokoan.

35. Dramatizazioa

Lan egiteko era: Talde txikian/Talde handian

Esaera zaharren esanahia ulertzeaz gain, gure ikasleek horiek erabiltzen ere ikasi behar dutenez, esaera hori erabil daitekeen egoerak asmatzeari eta dramatizatzeari ekingo diote. Talde txikietan egingo dute lana, gero, talde handiari aurkeztuz.

36. Gaiaren ipuina: "Bideo-joko berria"

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 25. eta 26. or./Irakurgaiak 5, 19. orrialdetik 22.era

Unitate guztietan gaiari dagokion ipuin bat aurkituko duzue irakurgaietan. Ipuinari dagokion lanketa hiru zatitan egingo dugu beti: irakurri aurretik, aurre-ezagutzak edota aurreiritziak martxan ipintzeko, girotzeko, motibatzeko, ipuineko testua ulertzen laguntzeko, ipuinaren edukiari buruzko aurrerapenak edo hipotesiak egiteko, irakurketaren helburua finkatzeko...; irakurri bitartean, ipuinaren ulermena bermatzeko; eta irakurri ondoren, sintesi- edo asimilazio-estrategiak martxan jartzeko, edota gai jakin baten inguruan hausnartzeko eta horri buruzko iritzia adierazteko. Informazio hori guztia liburuan bertan ikasleei adierazten zaie.

Jarduera konstantea izango duzue hori unitate guztietan. Irakurri aurretiko eta ondorengo jarduerak liburuan bertan azalduko dira, eta bitartekoari dagozkion iradokizun edo proposamenak gidetan.

Aurtengo lehenengo unitatea denez, ipuinaren irakurketari dagozkion jarduerak taldean landuko ditugu. Ipuineko pertsonaiak ziklo honetako pertsonaiak dira; beraz, komikiko irudiei behatuz, nor den nor asmatzeari ere ekin diezaiokezue. Irakurri aurretiko eta ondorengo jarduerak lantzeko, jarrai iezaiezue liburuko urratsei. Unitate honetan, gaiari dagokion ipuina testu mota honi dagozkion hainbat ezaugarri gogora ekartzeko baliatu dugu, ikasleek idatziko duten ipuinerako hainbat ezagutza eta eredu eskaintzeko asmoz. Ipuina aitzakia, ipuinen inguruko hainbat alderdi gogora ekarri eta landuko dira; beraz, ez ahaztu horiek ipuinen txokoan idaztea. Horrez gain, bideo-jokoen erabileraz eta bakoitzak duen horiekiko jokabideaz hausnartzeko eta hitz egiteko parada ere hartuko dugu.

Testuaren irakurketa bakarka, eta isilean, egin dezakete ikasleek lehendabizi. Une hori balia dezakezu, ikasle bakoitzaren irakurtze-abiadura neurtzeko. Ez da beharrezkoa neurketa zehatza egitea; nahikoa zenuke, itxuraz, zailtasun handiena duten ikasleak identifikatzearekin. Eta itxuraz diogu, izan ere ez da ahaztu behar irakurketa-abiadura ez datorrela bat, derrigorrez, irakurritakoaren ulermen mailarekin. Lehen irakurketa horren ondoren, aurretik egindako iragarpenak zein neurritan bete diren komenta daiteke, talde handian hitz eginez.

Bigarren irakurraldi bat egitea ere proposatzen dugu. Oraingoan, ikasleek, txandaka, ipuinaren pasarte bana irakurriko dute ozenki eta talde osoaren aurrean. Irakurritakoaren ulermen zehatzari eta hainbat ulermen estrategia lantzeari jarriko diogu arreta. Esaterako, orrialde bakoitzaren amaieran, eta aurrera jarraitu aurretik, irakasleak

bi galdera luzatuko ditu: bata, ordura arte irakurritakoaren laburbilketa egiteko asmoz (*Zer da gertatu dena?* edo antzekoren bat); bestea, datorrenari buruzko hipotesi berriak egiteko (*Zer gertatuko da ondoren?* edo antzekoren bat). Horrez gain, hona testu honekin landu ditzakezun beste eduki batzuk ere:

- Bideo-jokoekin zerikusia duten hitzak eta horien esanahi zehatza: *jokoa*, *bideo-jokoa*, *sarrerako pantaila*, *DVDa*, *banderatxoak/ikurriña*, *dokumentala, hizkuntza automatikoa, ahots metalikoa, monitorea, ordenagailua, sakatu, pantaila*... Ikasleei hitz horietako bakoitzaren esanahi zehatza, testuinguru horretan dutena, azaltzeko eska geniezaieke testua irakurri ahala.
- Ironia: "*Jo, Intza, zu beti hain baikorra*...". *Esaldi honekin benetan esaten duena esan nahi du ala kontrakoa?*
- Ikasleentzat ezezagunak edo ulertzeko zailak izan daitezkeen hitzen esanahia argitu. "*Jo! Ia 150 milioi kilometro! Ez dago* ***hurre****!*" *Zer da hurre: hurbil ala urrun? Erantzun, testuinguruaz baliatuz. Zergatik diozue hori?*

Azkenik, bideo-jokoen erabileraren inguruko hausnarketa bideratzeko edota dokumentatzeko informazio interesgarria aurkituko duzu, irakasle, *Internet, videojuegos, televisión... Manual para padres preocupados* liburuan eta baita Interneteko orri honetan ere:
www.revista.consumer.es/web/eu/20001201/actualidad/tema_de_portada/
38378_4.php ("10 bideo-joko aztertu ditugu eta hainbat arlotako espezialistei iritzia eskatu diegu")
Ikusi:
www.revista.consumer.es/web/eu/20001201/actualidad/tema_de_portada/38378_4.php
"10 bideo-joko aztertu ditugu eta hainbat arlotako espezialistei iritzia eskatu diegu":
Internet, videojuegos, televisión... Manual para padres preocupados
Egilea: Serge Tisseron
Argitaletxea: Graó
2006ko martxoa

37. Ipuin-idazketa

Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian
Materiala: Ikaslearen liburua, 27. eta 28. or.

Taldean, ipuin-idazketa prozesuan ematen diren ohiko urratsak gogora ekarriko ditugu, orrialde horretan proposatzen zaizkigun ariketak jarraituz. Urrats horiek izango dira guk jarraitu beharrekoak ipuina idazteko; beraz, komeniko litzaizueke kartulina batean kopiatu eta ipuinen txokoan jartzea.

Proiekturako sortuko duten ipuinaren idazketa-prozesuko zein urrats bete dituzten eta orain zer egitea dagokien ohartarazteaz arduratuko gara. Garrantzitsua da ikasleak jabe daitezen testu bat idaztea ez dela bat-batean burutzen den zeregina, urrats batzuk eman behar direla, eta urrats horiek zein diren jakin behar dutela. Hala, unitatearen une honetan, idazlanaren xedea badutela gogoratuko dugu (unibertsoaren gaian inspiratutako istorioak sortzea, sormen-teknika ezberdinak erabiltzea), idatzi nahi dugun testu mota ipuina dela eta dagoeneko hainbat ideia sortu eta bildu ditugula. Planifikazio unean gaude, beraz, eta zirriborroak idazten hasi haurretik, bada egiteko dugun zeregin bat, behintzat: sortu eta bildutako ideia horien guztien artean interesatzen zaizkigunak aukeratu eta testu motaren arabera ordenatzea, hau da, ipuinaren eskema egitea.

Zeregin horri ekin aurretik, ordea, ipuinei buruz dituzten aurre-ezagutzak berriz martxan jarriko ditugu:

- Zer dakigu guk ipuinen elementuez eta egituraz?

Ipuinei buruz dakigun hori irakurgaietan irakurri ditugun ipuinetan betetzen den aztertuko dute ikasleek talde txikietan, eta bukatzean, talde handiaren aurrean azalduko dute lana.

Horren ostean, 28. orrialdean dugun informazioa talde handian irakurriko dugu eta aurreko jardueran aztertutakoarekin erlazionatuko.

38. Ipuina idazten

Lan egiteko era: Talde txikian/Bakarka/Binaka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 28. eta 29. or./Lan-koadernoa 5, 17. orrialdetik 20.era

Dagoeneko izango dituzte hainbat ideia bilduta euren koadernoko orrian. Talde txikietan, martxan jarriko dugu bakoitzak bere koadernoan bildutako ideiak besteei kontatzeko eta sor daitezkeen berriak biltzeko ere baliagarria izan daitekeen elkarrizketa-unea.

Horren ostean, banaka, ipuinaren zirriborroa lan-koadernoan idazteari ekingo diote. Zirriborroa bukatzean, ipuina garatzen hasi aurretik, idazketa-lan horretan kontuan izan beharko dituzten hainbat alderdi gogora ekartzen eta horien erabilpena egiten trebatuko dira, antolatzaileak erabiltzen eta arauak idazten, hain zuzen ere. Informazioa taldean irakurriko eta landuko dugu eta, ondoren, lan-koadernoko jarduerak bakarka egin ostean, taldean ere errepasatuko ditugu. Idazketa-arau eta testu-antolatzaileen erabilerarekin zerikusia duten hainbat jarduera aurkituko dituzue CD-ROMean, horien erabileran trebatu behar diren ikasleentzat.

Lan hori egindakoan, bakoitza bere koadernoan nahiz orri solte batean, ipuinaren gidoiari jarraituz, idazteari ekiteko prest izango dira. Ekin bada!

Ipuinaren zirriborroa idatzita dutenean, berrikusketa egiteari ekingo diote ikasleek. Interesgarria litzateke, lehenik eta behin, bakoitzak bere ipuina berrikustea eta egokiak diren zuzenketak egitea eta, ondoren, batak bestearena berrikustea eta ahoz adieraztea edo iradokitzea zer zuzenketa egin ditzakeen. Idazketa-prozesuko zenbait unetan, elkarlana bultzatuko dugu, beraz, prozesu hori errazteko eta aberasteko bitarteko bezala.

39. Liburu artean II: *Ipuin naturalak*. Ilustrazioak eta ilustratzaileak

Lan egiteko era: Talde txikian/Binaka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 30. eta 31. or./Irakurgaiak 5, 23. orrialdetik 25.era

LIBURU ARTEAN konstantearen unitateko bigarren proposamena duzu hau. Oraingo honetan, ilustrazioen eta ilustratzaileen lanaren bidetik ahaleginduko gara liburuekiko interesa ikasleengan sortzen edota indarberritzen.

30. orrialdeko proposamenekin, aipatzen diren gaiak (ilustrazioak eta irakurketa-ohiturak, liburuaren azala eta fitxa bibliografikoa, ilustrazioen estiloa) aztertzeaz gain,

beste helburu bat ere landu nahi dugu: liburuko azalpenak irakurriz, beste inolako azalpenik gabe, eta aldez aurretik adostutako denbora erregulatuz, ikasleek lan egiten dakiten ikustea. Taldeak irakasleak osa ditzake, antzeko lan-erritmoa duten ikasleekin. Jarduera egiteko emandako denbora lan-erritmo guztiak kontuan izanik erabakiko dugu.

Hasteko, ilustrazioek norberaren irakurketa-ohituretan duten garrantziaren inguruko talde-elkarrizketa burutuko dute ikasleek. Ikasleek talde txikietan nahiz binaka antolatuta arituko dira elkarrizketan, eta bukatzean, hitz egindakoa gainerako guztiekin partekatzeko talde handian elkarrizketa sortuko dugu, liburuan eskaintzen den galdetegia gidoitzat erabilita.

Ondoren, *Ipuin naturalak* (ELKAR, 1993) liburuari dagokion fitxa bibliografikoa aztertu, bertako informazioa interpretatu eta ilustratzailearen izena identifikatzeko eskatuko zaie ikasleei. Balia genezake une hori ikastolako liburutegia hobeto ezagutzeko.

"Horko fitxa liburutegietan erabili ohi diren fitxa motetako bat da. Horrelako fitxek liburutegian dauden materialen (liburuak, aldizkariak, diskoak, bideoak...) datuak biltzen dituzte hainbat helbururekin:

- Zer dagoen jakin.
- Nola sailkatu eta banatu liburutegiko armairu eta apaletan.
- Behar denaren bilaketa erraztu.
- ...

*Zuen **ikastolako liburutegian** ba al dakizue zer dagoen eta non dagoen, eta azkar bilatzeko baliabiderik ba al duzue? Zein?*
***Gelako liburutegia** antolatzeko eta erabiltzeko fitxarik erabiltzen al duzue? Nolakoak?"*

Segidan, *Irakurgaiak* liburuan, hainbat euskal ilustratzaileren hitz eta irudiekin osatutako testua irakurri eta ilustrazioen estiloa aztertzeko eskatuko zaie ikasleei, berriro ere talde txikietan antolaturik, eskaintzen zaien gidoiari jarraituz, eta horretarako denbora mugatua erabilita. Eskaintzen zaizkienaz gain, irizpide hauek ere eman diezazkiekegu ikasleei, beharrezkoak edo lagungarriak ikusiko bagenitu: estiloa (umorezkoa, errealista, fantastikoa...), teknika (marra, kolorea, margoak, beste material batzuk, collageak, argazkiak...), formatua (espazioaren erabilera, tamaina, irudiaren mugak edo ertzak...)...

31. orrialdean, irudien irakurketa egitea proposatzen da, hau da, ipuin bateko irudiei behatuz, istorioaren nondik-norakoak imajinatzea. *Ipuin naturalak* liburuko "Eguzkiñe Eguzkiza" ipuineko "irakurri" ondoren, testua irakurtzeko gonbitea luzatuko genieke ikasleei. Ikasle bakoitzak bere liburua eskuratzea edo erostea, edota, bestela, gelako liburutegian hainbat ale (lauzpabost, esaterako) ikasleen eskura izatea irakaslearen esku geratzen den erabakia da.

Testuaren eta ilustrazioen arteko harremanaren ildotik, beste jarduera batzuk ere plantea daitezke: pasartea eta irudia erlazionatu; testuak adierazten duena eta irudiak adierazten duena konparatu, errepikatutako xehetasunak aurkituz, testuak eskaintzen dituen xehetasunak baina irudiak ematen ez dituenak, eta alderantziz, aurkituz... Ipuinei eta irakurketa sustatzeari buruz, ikusi *Ipuina lantzeko gida*, Euskal Idazleen Elkartea (Liburuen xarma, 4).

Konstantearekin bukatzeko, ohikoa den moduan, gelako liburutegia aztertzeko eta erabiltzeko azken proposamen bat luzatuko zaie ikasleei.

40. Ilustrazioetatik abiatuta, ipuina imajinatzen. Eguzkiñe Eguzkiza
Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian/Talde txikian
Materiala: Ikaslearen liburua, 29. or.

Orrialde horretako lehenengo jarduera bakarka irakurri eta ilustrazioei sakonki behatuz, iradokitzen dienaren arabera, ipuina buruan irudikatzeko tartea emango diegu ikasleei, ondoren, talde txikietan, bakoitzak irudikatutakoa besteei adierazteari ekingo diote. Ikasle baten edo besteren baten ahozko adierazpenari behatzeko aukera aprobetxa ezazu, irakasle!

Bestetik, *Ipuin naturalak* ipuin-bilduma eskuratu eta bertako ipuinak irakurtzeko proposamena ere luzatzen dizuegu. Eguzkiñe Eguzkizarena irakurri ostean, ikasleek irudikatutakoa eta ipuinean kontatutakoa bat datorren ikusteaz gain, ipuinak irakurtzen edo entzuten goza dezaten.

41. Gelako liburutegia
Lan egiteko era: Talde handian
Materiala: Ikaslearen liburua, 29. or.

Liburuan proposatutako jarduera talde txikietan egin ondoren, har ezazue denbora gelako liburutegia antolatzeko eta ikastolako liburutegia bisitatzeko ere. Araka itzazue bertako liburuak, talde txikietan, jabetzeko zer liburu mota dauden, gustukorik aurkituko ote dugun, etab. Gero, anima itzazue ikasleak nahi dutenean ipuin edo libururen bat etxera eraman dezaten, euren aisialdian irakurtzeko. Horretarako, fitxak osatu beharko dituzue, eta bertan hainbat datu apuntatu: liburuaren izenburua, etxera eraman duen haurraren izena, hartutako egunaren data, entregatzeko egunaren data... Hori guztia talde handian adostu eta martxan jarri.

42. Ipuinaren edizio-lana
Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka
Materiala: Ikaslearen liburua, 29. or.

Ipuina editatzeko ordua iritsi dela ikusirik, talde handian, orrialde honetako liburuko bonbillan adierazten zaizkigun ideiak irakurri eta lana nola burutuko dugun eta zer material behar ditugun (ipuinaren azala: kartulinaz, sokaz edo artilez lotuta, plastifikatuta, tenpera, argizari edota koloretako arkatzez marraztuta, hainbat materialekin osatuta...) argituko dugu. Behin behar ditugun materialak bilduta ditugunean, ikasle bakoitzak bere edizio-lana egiteari ekingo dio.

43. Eguzki-Sistema
Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Binaka
Materiala: Ikaslearen liburua, 32. eta 33. or.

Talde handian, eguzki-sistemari buruzko azalpen-testua irakurri ahala, irudiarekin erlazionatzen saiatuko gara. Bi orrialde hauetan agertzen den informazioa, ikasleek, irudia aurrean dutela, ahoz, modu egoki eta zuzenean (ikus etapa-amaierako hizkuntzako helburuen eta ebaluatzeko irizpideen taulan ahozko adierazpenari

dagozkionak) adierazten jakin beharko dute. Informazioa ulertzeko, irakaslearen azalpenak beharrezkotzat jotzen ditugu (kontzeptuei buruzko azalpenak eta euren arteko erlazioak egitera bultzaraziko ditugu ikasleak).

Informazioa ulertu dela ziurtatu ondoren, ikasleek laburpena jasotzeko belztuta dauden esaldiak kopiatuko dituzte euren koadernoan. Bukatzean, informazio hori ahoz adierazten trebatzeko, bikoteka, batak besteari adierazteari ekingo diote, unitatea bukatzean irakasleari adierazi beharko baitiote.

44. Grabitatea eta grabitate eza, gorputza eta irudimena lagun, esperimentatzen

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 34. eta 35.or.

Esan bezala, ikasleek bigarren mailan unibertsoari buruzko unitatea landu zuten, eta, ondorioz, unitate honetan badituzte berriro gogora ekartzen saiatzeko aurre-ezagutzak. Grabitatearen ideia da horietako bat. Taldean, bigarren mailako laugarren unitateko liburuan agertzen diren orrialdeak aztertu ondoren, ekar ezazue gogora orduan ikasitakoa eta erlazionatu orrialde honetan lantzen denarekin.

Orrialde honetan agertzen diren kontzeptuak ulergaitz samarrak dira. Orain, hurbilketa besterik ez dugu egingo, aurrerago, DBHn, izango dute kontzeptu horietan sakontzeko aukera. Oraingoan, beraz, musika- eta gorputz-adierazpenaren bidezko bizipenetan oinarrituko gara.

45. Entzunaldia II: Grabitazioa eta grabitazio eza, erakartasuna eta oreka

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Irakasleak edota ikasleek aukeratutako entzunaldia(k)

Jarduera honetan, musika eta dramatizazioa uztartzeaz gain, inguruneko kontzeptu batzuk errazago ulertzen lagunduko die lanketa honek ikasleei.

Talde handian, grabitazioa eta grabitazio eza bizitzeko liburuan agertzen diren egoerak dramatizatzeari ekingo diogu. Hasteko, egin beharrekoa adierazi ikasleei eta, era librean, dramatizatzen has daitezela. Ondoren, talde txikietan jar daitezke, eta egoera horiek gorputzaren bidez adierazteko izan daitezkeen modurik edo adierazpiderik aproposenak adostu eta egiteari ekin diezaiotela. Irakasleak behaketa-lana egin eta ideiak emango ditu bitartean. Egoera horiek dramatizatzeko, musika aproposa bilatzea ere lagungarri izan daiteke. Esan ikasleei musikak bilatu eta egokiena aukeratzeko eta erabiltzeko euren dramatizazioak egiteko; bestela, jar ezazue zeuek egokiena deritzozuena. Musika lasaia eta motela izan daiteke egokiena astuntasuna adierazten laguntzeko, eta musika alaiagoa edota biziagoa arintasuna adierazteko.

Bestetik, eguzki-sistemaren inguruko informazioa jaso dugu aurreko bi orrialdeetan. Bertan, planeten posizioa eta orbita zein den ikusi dugu. Ikasitakoa irudikatuko dugu, orain, musika lagun dugula. Aukera polita da, entzunaldiari dagokion jardueran proposatutako Big-Bang-aren eztandaren ondorioz, kaosetik kosmoserako aldarte horrekin hastea musika lagun izanik, eta, gero, kosmosera iristean, eguzki-sistema eratzeari ekin diezaiokezue, bertako elementuak pertsonek irudikatuta. Orbitak lurrean marraz ditzakezue, planetek musikaren erritmoan zer bideri jarraitu behar dioten jakiteko. Eguzki-sistemaren oreka eta kohesioa irudikatzeko, planetak eguzkiari lotuta egon daitezke soka batekin; soka erakargarritasunaren seinale izan daiteke. Taldean argitu eta adostu ezazue nola egingo duzuen errepresentazio hori. Ikuskizun polita izan

daiteke hori, orain prestatu eta ikastolako jairen batean, Gabonetan nahiz zuen ipuinen aurkezpeneko ekitaldi batean txertatzeko. Hala erabakiz gero, hitz egin ezazue agertokiaren apainketaz, jantziez, iluminazioaz, tokia girotzeko musikaz eta gainerako xehetasun guztiez ere.

46. Eguzkia jainkotzat

Lan egiteko era: Talde handian
Materiala: Ikaslearen liburua, 35. or./Irakurgaiak 5, 26. or.

Orain arte Txanelan landutako unitateetan ezagututako hainbat zibilizaziok, geureak barne, eguzkia jainkotzat hartzen zutela azaltzen digu irakurgaiak eta baita eguzkia izendatzeko Euskal Herrian erabiltzen diren hitzen berri eman ere. Taldean irakurriko dugu testua eta baita elkarrizketa bultzatu ere, horren inguruan dakigunaz hitz egiteko.

Ondorengo orrialdeko edukiaren (euskalkiak) aurrerapen gisa, testuko azken paragrafoari errepara diezaiokegu.

- *Zer adierazi nahi ote dute parentesien barruan agertzen diren G, N eta Z laburdurek? Gipuzkoan (Irunen) "iguzki" esaten da eta Nafarroan (Aezkoan) "iduzki": bietan euskaraz egiten dute, baina berdin egiten al dute? Euskara hitz egiteko modu berdina erabiltzen ote dute? Zer dakizue zuek horretaz?*

47. Hiztunak eta hizkuntzak: Euskalkiak

Lan egiteko era: Talde handian
Materiala: CDa, 3. pista/Ikaslearen liburua, 36. or.

HIZTUNAK ETA HIZKUNTZAK jarduera hau konstanteetako bat da, hau da, unitate guztietan azaltzen dena, baina bakoitzean gai ezberdina jorratzen da; oraingo honetan, euskalkiak.

Eguzkia aitzakia, Tapia eta Leturiak abestutako "Eguzkie yoan da" Bizkaiko kopla zaharraren hasierako zatitxoa irakurri eta liburuan luzatutako galderen inguruan hitz egiteko elkarrizketa sortuko dugu. Bizkaiko euskalkian abestutako kopla dugunez, euskarari buruz eta euskalkiez hitz egiteko parada ere izango dugu, talde handian euskalkiei buruzko testua irakurri eta mapari behatuta. Horren ostean, liburuan proposatutako jarduerak ahoz eta talde handian egiteari ekingo diogu. Hemen azpian dituzue horiek osatzeko lagungarri izan daitezkeen hainbat ideia eta ohar.

- **Eguzkie yoan da**/Hitzak: herrikoiak/Doinua: J. Tapia

Eguzkie yoan da / bere amagana /
biher etorriko da / denpora ona bada.

Astotxo bat baneuko / buzten zuriegaz/
Ermure yoateko / gona gorriegaz.

Amorebidetako / bizi-alargune /
bakarrik egon barik / hartuixu lagune.

Hamalau zapatarik / ein dabe juntea /
zeinek lenago yosi / zapata puntea.

Tiriki tauki tauki / mailuaren hotsa /
hamalau hargin baino / hoba dok harotza.

Agure buruzuri / oilanda zalea /
nok irakatsi deutsu / gurera bidea?

Gazteak badakizu / zelan dantzan egin /
burua gora-gora / kaderai eragin.

- Ikusi: www.eke.org/euskara/linguistika/euskalkiak. Mapa batean klikatuz euskalki ezberdinetan esaldi bera entzuteko aukera ematen du. Hitz egiten duenaren irudia agertzen da, herriaren eta euskalkiaren izenarekin batera. Esaldia: "Guk euskaraz hitz egiten dugu".

48. Bertsoz: Kopla zaharrak eta bertsolaritza

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian/Talde txikian
Materiala: Ikaslearen liburua, 37. or./DVDa/Irakurgaiak 5, 27. or.

BERTSOZ jarduera ere konstanteetako bat da; beraz, unitate guztietan aurkituko duzue. Unitate bakoitzean bertsolaritzarekin erlazionatutako gairen bat aurkeztuko da konstante honetan, eta, gai horretatik abiatuta, hainbat lan proposatuko dira. Kasu honetan, kopla zaharrak eta tradizioko hainbat ohituraren jarraipenean bertsolariek izan duten funtzioa dira abiapuntua. Lehen unitatea izanik, bertsolaritzaz ikasleek dakitena gogora ekartzeko baliatuko dugu, eta bertsolaritzarako interesa sortzeko edo areagotzeko asmoz, bertso-saioaren inguruan jolas egitea ere proposatuko dugu.

Ikasleek, bakarka, orrialde honetako lehenengo bi jarduerak eta baita irakurgaietako "Bertsoen unibertsoa" bertso-sorta ere irakurtzeko tartea izango dute. Horren ostean, testuak talde handian irakurri edo abestuko ditugu eta, jarraian, talde txikietan antolatuta, taldekide bakoitzak bertsoko kopla bat hartu eta haren gaia zein den hitz batean adierazi beharko du, eta baita bertsoaren inguruan esaten dena ahoz adierazi ere bere taldekideei. Helburua zera da: orain artean, ikasturtez ikasturte bertsoen inguruan ikasi dituztenak gogora ekartzea. Hauek dira kopletan aipatzen diren eduki horietako batzuk: oina (2. koplan); puntua (3.ean); oinen errepikapenik eza (4.ean); lerroen neurria (5.ean); neurri txikia eta doinua (6.ean); neurri handia eta doinua (7.ean); kopla eta bertsoa (8.ean); gaia eta bat-batekotasuna (9. eta 11.ean); bertsoa osatzeko atzekoz aurrerako prozesua (10.ean); bertso-saioak eta saio motak (12. eta 13.ean); bertsolariak (14.ean); bertso-eskolak (15.ean); bertsolaritzaren agerpen berriak –bertso-ipuinak, bertso-antzerkiak, diskoak...– (16.ean). Bukatzean, egindako lana partekatu eta bertsoari buruzko hainbat informazio izango dugu bilduta, nahi izanez gero, koadernoan jaso ditzakegunak.

Hona hemen bertsoaren inguruko edozein zalantza argitzeko edo informazioa biltzeko erabilgarri izango duzuen helbide elektronikoa: www.bertsozale.com.

49. DVDa. Bertso-saioa

Lan egiteko era: Talde handian/Tale txikian

Materiala: Ikaslearen liburua, 37. or.

DVDko bertso-saioa ikusi aurretik, taldean, liburuko jarduera irakurriko dugu, helburua zein den ikusi eta, beraz, zeri erreparatu behar diogun jakiteko. DVDa ikusi bitartean, behar beste aldiz gelditu dezakegu, edo une jakin bat bi aldiz errepikatu, egoerak horrela eskatzen badu edota argibideren bat ematea beharrezkoa balitz. Bukatzean, elkarrizketa bultzatuko dugu.

DVDa ikusi ostean, antola ezazue bertso saio bat. Irakurgaietako koplak erabil ditzakezue horretarako, kopla bakoitzeko gaia zein den ere aztertuta eta erabakita baituzue. Animatzen bazarete, berriak sortzeari ere lekua, tartea eta tokia egin. Ekin iezaiozue, bada, antzezpenari! Gogoan izan, gorputzaren jarrera, keinuak, hitzen ahoskera, erritmoa eta doinuak landu eta zaindu behar dituzuela.

50. Eguzki-sistemako beste gorputzak. Sateliteak edo ilargiak

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: ikaslearen liburua, 38. or./9. lan-koadernoa, 21. or.

Tarte bat eman ikasleei satelite eta bestelako zeruko gorputzei buruzko informazioa irakurtzeko. Ondoren, taldean irakurtzeari ekingo diogu, informazioa ulertzeko beharrezkoak diren argibideak emanez eta elkarrizketa sortuz, horiei buruz dakigunaz hitz egiteko. Gero, ikasleek ilargiari buruzko informazioa buruz ikasiko dute.

51. Ba al zenekien?

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Irakurgaiak 5, 28. eta 29. or.

Irakurgai honetan, unibertsoari buruzko hainbat bitxikeria aurkituko ditugu. Ikasleei orrialde horiek bakarka irakurtzeko aukera eman ondoren, talde handian, banan-banan irakurriko ditugu, eta horietariko bakoitzari buruz hitz egiteko elkarrizketa sortuko dugu.

52. Artelana

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 39. or.

Gizakiak unibertsoarekiko beti izan duen jakin-mina kulturaren hainbat adierazpenen bidez islatu izan du beti: mitologia eta kondairak, herri-esaera eta esamoldeak, bizitza-ohiturak eta baita arte plastikoetan ere aurki dezakegu kosmosaren irudikapena.

Oraingo honetan, liburuan azaltzen den Jean Lurçat-en tapizari behatuko diogu, eta unibertsoa gai duten beste lanak aurkituz gero, gelara ekartzeko ere eskatuko diegu ikasleei.

Bestalde, tapizaren aldamenean idatzita dagoena irakurriko dugu, eta tapizei buruz, liburuen ilustrazioaz eta antzerkietako dekoratuaz zer dakiten galdetuko diegu.
Zerua edo unibertsoa aitzakia, hainbat irudikapen plastiko gara ditzakegu. (2. mailan, globoak eta egunkari zaharrak erabiliz, planetak egiteko proposamena luzatu zitzaien).

53. Zerua margotzen: hainbat kolore zeruan
Lan egiteko era: Bakarka

Zerua ez dago ia inoiz berdin, gauez begiratu nahiz egunez begiratu, aldaketa handiak sumatuko ditugu. Egunsentian, ilunabarrean, ekaitza dagoenean, hego haizearekin edota ilargi betearekin, izartsu nahiz hodeitsu, euritan, elurretan…, era askotan eta kolore askorekin margo dezakegu zerua. Ea guztion artean zeruaren mila aurpegiak islatzea lortzen dugun!

Ekaitza eta egun euritsuak adierazteko, nagusiki, kolore hotzak erabiliko ditugu (nahiz eta argi-izpi horiren bat ere tartean sar daitekeen). Egunsentiak eta ilunabarrak aproposak dira kolore beroak erabiliz konposizioak egiteko. Erakutsi ikasleei kolore hotzen eta beroen arteko sailkapena.

Bestetik, eguraldiak berak eta zeruaren koloreak gugan sentipenak sor ditzake: tristura, egun euritsu eta grisetan; alaitasuna, energia, egun argitsu edo eguzkitsuetan. Hori ere islatzen saiatuko gara.

Bi autoreren lanak ere beha ditzakegu:

- Miróren kasuan, lirismoa ikus dezakegu bere lanetan; zerua, izarrak, konstelazioak izan zituen inspirazio bide.
- Van Gogh-en koadroetan (batez ere azken garaikoetan), atentzioa ematen du zeruaren marretan jartzen duen indarrak, bere aldartearen egoeraren isla bailitzan.

Bakoitzak aukera dezala nola margotu nahi duen, eta pastelak, klera, argizariak edota tenperak erabilita, egin dezala bere pintura. Oraingoan, ikasle bakoitzak bere lanari izenburua jar diezaion eskatuko diogu, eta "titulurik gabea" jartzeak ez duela balio adieraziko diogu.

54. Hodeiak eta formak
Lan egiteko era: Bakarka

Ahal dela zeruari behatuz, edo bestela buruz, marraz dezagun hodei baten forma orri batean (hondoa edozein koloretakoa izan daiteke), eta forma horrek burura ekartzen diguna irudika dezagun, margoak edota rotuladoreak erabiliz. Hondoa ere osa dezakegu.

55. Zerua gauez: estanpazioa
Lan egiteko era: Bakarka/Talde txikian/Talde handian

Papera edo oihala estanpatuz, irudika dezakegu zerua gauez. Kartulina edo enbalatzeko paper iluna (urdina, beltza) tenpera zuriz edota horiz inprimatuko dugu. Estanpazioa egiteko, hainbat bide ditugu:

- Eginda dauden tanpoiak erabiliz edota patata hartu eta kontu handiz, hainbat forma emanda: ilargi betea (errazena), ilgora edota ilbehera (forma berari bira emanda) edo izar-forma emanda; ondoren, tenperetan busti (oihalean margotzeko pinturak garestiak dira) eta paperaren edo oihalaren gainean estanpatu.

- Saltzen dituzten txantiloiak erabiliz edo kontu handiz kartulinan guk egindakoak erabiliz. Estanpatu nahi ditugun irudiak kartulina batean marraztu eta kuter batekin edo guraizeaz kontu handiz moztu. Txantiloia jarri konposizioak eginez oihalaren edota paperaren gainean, eta pintatu. Negatiboa egiteko, nahi dugun irudia marraztu eta moztu ondoren, paperaren edota oihalaren gainean kokatuko dugu, eta kanpotik pintatuko dugu.

Antzeko lana oihalean egiteko aukera maila honetako 3. unitate didaktikoan edukiko duzue.

56. Zerua "kollage" bidez irudikatzen
Lan egiteko era: Talde txikian/Bakarka

Ekar ditzatela aldizkari eta oihal zaharrak gelara eta kartulina (beltza ere erabil daiteke) baten gainean eraiki dezatela "beren unibertsoa", moztutako paper eta/edo oihal-pusketak itsatsiz. Itsatsi aurretik, konposizio desberdinen frogak egin ditzatela moztutako elementuekin, gustukoenari kola emateko.

57. Baxuerliebea: Taldean, paper-pastaz unibertsoa irudikatzen
Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian

Lan hau burutzeko, okumezko euskarria beharko duzue. Txaparen neurria taldekatzearen araberakoa izango da. Talde txiki (4-5) bakoitzak lan bat egin dezake, edota gela guztiaren artean koadro handi bat. Okume txaparen lodiera garrantzitsua da, eta 5-7 mm beharko ditu hezetasunarekin eta pisuarekin forma gal ez dezan.

Lanean hasi aurretik, koadroaren konposizioaren arrasto nagusiak diseina ditzatela, eta, horren arabera, hartuko dituzue erabakiak.

Adibidez, bolumen handiko astroak edota objektuak jarri nahi badituzue, egunkari paperez (lehorrez) oinarrizko forma ematea aholkatzen dizuegu (bestela, pisu handia har baitezake) eta pintoreek erabiltzen duten zeloaz lotu. Haren gainean, egunkari-tirak kolarekin bustita jarri, azalera nahi bezala geratu arte. Kolarik egokienak kola zuria eta papereztatzekoa (enpapelatzekoa) dira.

Astroak edota objektu txikiak paper-pastaz egin. Komuneko papera erosoagoa da egunkaria baino, baina ez dugu erreziklatzen.
Egunkari-papera erabiliz gero, lehenik, balde batean pusketa txikiak jarri eta uretan eduki ondo bigundu dadin. Ura kendu, txiki-txiki egin eta ore bat egin eta, ondoren, kola nahastu eta hasi okumearen gainean formak itsasten. Koadro horretan plastilina pusketen bidez ere gehitu ditzakezue hainbat gauza txiki.

Guztia ondo lehortutakoan, tenperaz margotu. Markoa ere jar diezaiokezue. Lau listoi neurrira (ingeletean ala zuzen) moztu eta ertzean iltzatu.

58. Lurra, gure planeta eta beste planetak

Lan egiteko era: Talde txikian/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 40. or./Irakurgaiak 5, 30. eta 31. or.

Talde txikietan, lurrari buruzko informazioa irakurriko dugu eta proposatzen zaizkigun galderen inguruan hausnartu ere bai. Hausnartutakoaren inguruko oharrak taldekide batek bilduko ditu, gero, talde handiari adierazteko. Ondoren, gure planetari buruzko informazioa beste planetenekin alderatzeari ekingo diogu, datuei behatuz eta interpretatuz. Bukatzean, talde handian, elkarrizketa sortuko dugu, egindako lanaren inguruan hitz egiteko.

59. Lurraren mugimenduak

Lan egiteko era: Bakarka/Talde txikian/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 40. eta 41. or.

Sumatzen ez badugu ere, Lurra beti dago mugimenduan. Bakarka hasieran eta talde handian ondoren, lurraren mugimenduei buruzko informazioa irakurriz argituko dugu. Ondoren, mugimendu horiez hobeto jabetzeko, esperientzia azaltzen duen jarraibide-testua irakurri eta hura burutzeko beharrezkoa den materiala bilduko dugu (ardurak banatu, taldeak egin eta bakoitzak zer material ekarriko duen adostu, bakoitzaren erantzukizuna azpimarratu, norberaren arduragabekeriak taldean izan dezakeen eraginaz hitz eginez). Behin materiala bilduta dagoenean, talde txikietan, esperientzia egiteari ekingo diote.

Adierazi ikasleei, Lurrak, beste planetek bezalaxe, eguzkiaren inguruan bide edo orbita *eliptikoa* egiten duela, eta orbitak ez direla zirkunferentzia kontzentrikoak. Bereizi elipsea eta zirkunferentzia, eta azpimarra ezazue honako ideia hau ere: Eguzkia ez dago elipsearen erdian kokatuta, foku batean edo foku aldera baizik. Behatu esperientzia ilustratzeko dagoen marrazkiari, ideia horiek indartzeko.

Oharra: Argitu ikasleei lurraren ardatza irudimenezkoa dela, berez ez dela existitzen. Bestetik, aprobetxa ezazue aukera, taldean, *errotazio* eta *translazio* hitzen esanahiaren inguruan hitz egiteko.

- **Errotazioa**: errota (Iparraldean gurpila esan nahi du); gaztelaniazko “rotación”, “rodar”, “rodamiento”...; frantsesezko “rotation”, “rouler”...
- **Translazioa**: gaztelaniazko “traslación”, “trasladar” eta frantsesezko “translation”, lekualdatzea.

Bukatzeko, ikasle bakoitzak lurraren mugimenduei buruzko informazioa, irudiez lagunduta, bere koadernoan bilduko du.

60. Agenda

Lan egiteko era:Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 41. or.

Lurraren mugimenduek denboraren banaketarekin duten harremana aitzakia, ikasleen denboraren antolaketa autonomoa (zereginak eta aisialdia) bultzatuko dugu. Bi tresna berriz ere aurkeztu eta aztertu, eta erabiltzen irakatsiko diegu ikasleei: asteko ordutegia (asteko egunen zeregina eta aisialdia bertan adierazteko) eta agenda (zereginak idazteko eta antolatzeko tresna gisa). Elkarrizketa sortuko dugu gaiaren

inguruan, eta horien erabileraren inguruko estrategiak, bakoitzak bereak, talde handian hitzez adieraziko ditugu. Oso beharrezkoa izango da zenbaitentzat gai hau ikasturtean zehar tarteka birgogoratzea eta praktikan nola ipintzen den adieraztea, baina poliki-poliki erabilera autonomoa da bultzatu eta txalotu behar duguna.

61. Gure satelitea: Ilargia

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian
Materiala: Ikaslearen liburua, 42. or./9. lan-koadernoa, 19. or.

Bakarka lehenik, eta ondoren, talde handian, irakaslearen azalpenak lagun, ilargiari buruzko testua irakurtzen eta ulertzen saiatuko gara.
Ondoren, ikasleek lan-koadernoko jarduera osatzeari ekingo diote, eta gero, ilargiari buruzko informazioa euren koadernoan bilduko dute.

Oharra: Gaur egun, ilargiaren faseak lau direla esaten badugu ere, ba omen dirudi ikuspegi hori euskararentzat eta euskaldun jatorrarentzat arrotza dela, garai batean, ilberri eta ilbete besterik ez omen ziren existitzen eta.

62. Ikerketa

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian
Materiala: Ikaslearen liburua, 42. or.

Ikasleek, bakarka eta etxekoen laguntzarekin, ilargiari hilabete batean egunero zuzenean behatzeko edo hura ikertzeko proposamena luzatzen dizuegu. Jarduera polita da gai honetan landutako hainbat kontzepturi zentzua emateko. Lan hau egiteko epea markatu, burutu eta bukatzean esperientziari buruz hitz egiteko, talde handian elkarrizketa sortu.

63. Euskal kondaira edo ipuin mitologikoa

Lan egiteko era: Talde handian
Materiala: DVDa

Jarduera honen helburu nagusia ahozko ulermena lantzea da eta, bereziki, entzundako ipuinen ulermena. Unitatearen azken aldean gaudelarik, ipuinei buruz ikasitakoak birpasatzeko erabil dezakegu entzunaldi hau, eta, bereziki, entzun ondorengo unea. Eskaintzen den *Otasoina eta ilargia* ipuinaren bertsioa, *Izena duena, bada. (Euskal mitologian zehar)* (IKASTOLEN ELKARTEA) bideo-sortako *Izadia gurtzen zenekoa* lehenengo atal edo bideoko pasartea da (10:40. minututik 12:00.era doana).

Ikusten hasi aurretik, hainbat hitz garrantzitsuren esanahia argitu eta ikusiko denaren inguruko aurrerapenak egingo ditugu:

- *"Otasoina eta ilargia" du izenburua ikusi eta entzungo dugun ipuinak. Otasoina, otasortaz egindako fardela da. Otea, berriz, abereak elikatzeko jasotzen zen landarea, hau da, bazka-landarea. Nork ote darama otasoina? Non ote dabil? Zertan?*

- *"Ilargia beldurgarria da begiramendu gutxi diotenentzat. Gogor zigortzen ditu erasotzaileak". Hori diote, behintzat, euskal sinesmen zaharrek. Zer arazo izan ote du otasoina daraman horrek ilargiarekin? Zer gertatu ote da?*

Honako hau duzu, irakasle, entzungo den testua:

"Menditik etxerakoan ilundu omen zitzaion behin otasoinarekin zetorren gizonari. Nekaturik eta zama gainean zuela nekez zetorren bide galduetan zehar. Ilargi ederra lainoekin kukuka jolasten zebilen eta, halako batean, begiak itxi eta gau beltzean murgildu ziren mendiko bideak. Gizonak ez zuen ezer ikusten eta, haserre bizian, honela jardun zion ilargiari:

–Aise habil hor arinkeriaz! Har ezak otasoina nik bezala eta ikusiko diagu jolasten haizen.

Ilargiari ez zitzaizkion ongi iruditu gizonaren hitzak eta beregana eraman zuen. Geroztik, beti biraka omen dabil ilargiaren bi adarren erdian kokaturik mendiko gizona bere otasoinarekin. Zaharrek diotenez, oso garbi ikusten da beraiek dakiten egunetan".

Irakurri ondoren, ipuinaren elementuak eta egitura edo zatiak identifikatzeko eska diezaiekegu ikasleei.

64. Eklipseak: Eguzki-eklipsea eta Ilargi-eklipsea

Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian
Materiala: Ikaslearen liburua, 43. or.

Taldean, eklipseei buruzko informazioa irakurri eta esperientzia egiteko jarraibide-testua irakurriko dugu. Materiala bildu ostean, talde txikietan, esperientzia egiteari ekingo diote.
Orrialdeko azken jarduera (maketako elementu berak erabiliz ilargi eklipsea adieraztea) utzi, talde txikitan pentsatzeko. Problema txiki baten ebazpenean ari gara, eta estrategia edo erantzuna ez da bakarra. Bultzatu hausnarketa eta, ondoren, talde txiki bakoitzak aurkez dezala bere proposamena. Bukatzeko, elkarrizketa sortu esperientziaren inguruan.

65. Txisteak

Lan egiteko era: Bakarka/Talde txikian/Talde handian
Materiala: Irakurgaiak 5, 32. eta 33. or.

Tarte bat emango diegu ikasleei txisteak irakur ditzaten. Gero, talde handian, txiste bakoitzaren inguruan mintzatuko gara, grazia eta umorea zertan datzan aztertuz. Horren ostean, taldetxoetan, txisteetan adierazitako egoera nola antzeztu adostu eta, entseatu ostean, talde handian antzezteari ekingo diogu. Txiste hauek nahiz gaiarekin zerikusia duten beste batzuk ere bildu eta antzez ditzakezue.

66. Bueltako komikia: "Eklipseen" eguna

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 44. eta 45. or./CDa, 4. pista

Tarte bat emango diegu ikasleei komikia eta baita ondoko orrialdea bakarka irakurri eta irakurritakoaren inguruan hausnar dezaten. Gero, elkarrizketa sortuko dugu, hainbat gairen inguruan hitz egiteaz gain, Tough-en hizkuntza-funtzioetako batzuk martxan ipintzeko. Liburuko galderez gain, hemen azpian, aukerako galdera batzuk dituzue jarduera osatzeko.

- *Errepara diezaiogun izenburuari: "Eklipseen" eguna. Zer adierazi nahi du? Zenbat eklipse gertatzen dira, bada, komikian? Azaldu zein diren.* Bata eguzki-eklipsea da eta bestea Uxuek Intzari egiten diona.
- *Bigarren binetan, Uxuek arduradun rola hartu duela dirudi, berak erabaki du betaurrekoak nork eta zein ordenatan jantzi eta eklipseari begiratu. Zer iritzi duzu bere jarrerari buruz? Ondo al dago talde batean baten batek erabakitzea lana nola egin? Beharrezkoa al da taldeetan norbaitek arduradun rola hartzea? Zer alderdi on eta txar izan ditzake taldearentzat? Eta ardurak bete behar dituenentzat?*
- *Erreparatu orain 3. binetari eta azaldu, zure hitzekin, hor gertatzen dena. Zer gertatzen zaio Intzari? Zer da "hobe dena" ez azaltzea? Zergatik uste duzu ez duela azaldu nahi? Inoiz bizi izan al duzu horrelako egoerarik? Kontatu egoera taldekideei.*
- Hausnarketa soziolinguistikoa*: Beha iezaiezu Intzaren globo guztiei, Intza ez da hitz-motela; orduan, zergatik hitz egiten du batzuetan totelka? Nondik uste duzu etorri dela Intza Euskal Herrira bizitzera?* Intza euskaldun berria da, eta, sarritan, auto-zuzenketa jartzen du martxan euskaraz hitz egiterakoan, alegia, zerbait gaizki esan eta konturatuz gero, zuzendu egiten du. Ahozko adierazpena hobetzeko ardura du.

  Zuk ba al duzu zure adierazpena hobetzeko ardurarik? Zergatik? Zein dira hori egitearen alde onak eta txarrak? Auto-zuzenketa egiteko, lehenengo, akatsa egin dela konturatu beharra dago, onartu eta, ondoren, gaizki esandakoa jarraian ondo esan, inolako lotsarik gabe, jakinik auto-zuzenketa prozesuaren zatia dela. Denborarekin, akats horiek gure adierazpenetik ezabatu eta zuzentasunez hitz egitera helduko gara; animo, beraz, ikasleok! Auto-zuzenketa hizlari guztiek erabiltzen duten estrategia dela jakin ezazu, eta estrategia horiek erabiltzean, akats horiek gainditu eta hobetzearen aldeko jarrera erakusten dute. Hitz egin ezazue taldean gai honen inguruan.
- *Zergatik esaten du Jonek itsu gera daitekeela eta kontuz ibiltzeko? Zein dira eklipse-unetan hartu beharreko neurriak? Zergatik dira neurri horiek hain garrantzitsuak? Zer izan daitezke neurri horiek ez hartzearen ondorioak? Zu jabetzen al zara arrisku horretaz eta hartu izan al duzu horrelako egoeratan neurririk?*

Ondorengo aukerako galderak eta azalpenak liburuko 43. orrialdean proposatutakoen ostean luza ditzakezue:

- *Uxuek eklipsea begiratzeko duen denboraz abusatzen ari da, Intzaren denbora aprobetxatuz. Zer iritzi duzu Uxueren jarreraz? Maddik eta Manexek Intzaren alde egin dute, baina bi modu oso ezberdinetan. Zer iritzi duzu bi jokabide horiez? Zein uste duzu dela egokiena? Zergatik? Zuk zein erabiltzeko ohitura duzu, besteen arazoak zeuk konpondu edo konpontzen lagundu?*

- *Zer adierazi nahi du esaldi honek? "...gu ere zerbait bagara eta, ez gaitzazu guztiok eklipsatu!*
- *Badirudi Uxue konturatu dela gaizki jokatu duela Intzarekin, eta barkamena eskatu dio. Ondo egin al du? Barkamena eskatzea kontu erraza edo zaila da? Zergatik?*

Zenbaitetan, barkamena eskatzea norberak egin nahi duena egiteko modua izan omen daiteke. Horrela dio, behintzat, esaera zahar batek:

–Barkatu!
–Eta hurrengo pausoan sakatu?

Honela ere erabiltzen da:

–Barkatu!
–Baina hurrengo pausoan ez sakatu!

Bigarren honek barkamena onartzen dela adierazi nahi du. Lehena, berriz, abisua da, "badakit nolakoa zaren eta ez dizut barkatzen". Hitz egin ezazue esaera horien inguruan, eta, ondoren, erranak erran txokoan jartzeaz gain, bultzatu ikasleak bizitzako testuinguru ezberdinetan erabiltzera.

- Uxue damutu egin da zinez egin duenaz. Hitz egin ezazue damuari buruz, zer jokabide hartu behar den horren aurrean eta abar.

Abestiari dagokionez, adieraz iezaiezue ikasleei, gure lagunen koadrilan, norbaitek zerbait gaizki egin ostean, damutu, onartu eta egoerari aurre egiten dionean, zama kendu nahian eta umorez bukatzeko, "Ttunttun bero" abestia kantatzen dutela, denek batera, baita damutu den horrek ere, aldartea aldatu nahian. Hitz egin ezazue esandakoaz eta proposa iezaiezue ikasleei gelako arazoei dagokionez ere, konponbidea jarri eta gainditu ostean, eurek ere gauza bera egin eta abesti bera kanta dezaketela.

Jarduera bukatzeko, asertibitatea eta enpatia zer diren ulertzen saiatuko gara. Gero, "Ttunttun bero" abestia taldean entzun, abestu eta ikasteari ekingo diogu.

67. Hitz-errota

Lan egiteko era: Talde handian
Materiala: Ikaslearen liburua, 46. or.

Gure ikasleek bigarren zikloan iritzi-errotak antolatzen zituzten euren iritziak partekatzeko. Ziklo honetan, hitz-errota izango da haren oinordeko, hitzari lekua eginez, iritzia nahiz esperientziak kontatzeko. Jarduera hau ere konstanteetako bat da, eta unitate guztietan aurkituko duzue. Ikasturte honetako hainbat hitz-errota tutoretza gaiekin loturik daudenez, tutoretza orduan gara ditzakezue.

Taldean iritzi-errotak gogora ekarriz, irakur ezazue orrialdeko informazioa, hitz-errotako gaia eta jarraitu beharreko prozedura zein den gogora ekartzeko; ondoren, jar ezazue aurtengo lehenengo hitz-errota martxan. Bukatzean, egin ezazue hitz egindakoaren sintesia eta baita balorazioa ere denon artean.

Irakasle, beha iezaiezu hizkuntzako etapa-bukaerako helburuei eta ebaluatzeko irizpideei, zehazki, elkarrizketari dagozkienei, eta erabil ezazu hitz-errota hau aurre-ebaluazioa egiteko, ondoren, datozen gaietan modu berezian jorratu beharreko alderdiak zein diren jakiteko oharrak jasoz.

Ondorengo orrialdean, solaskideen partehartzeari behatu eta baloratzeko fitxa duzu; lehenengo, hitz errota honetan talde osoaren behaketa eta balorazioa egingo baduzu ere, komeniko litzaizuke ikasle bakoitzeko horrelako fitxa bat izatea, haren lanaren jarraipena egiteko oharrak bertan apunta ditzazun.

HITZ ERROTA

SOLASKIDEEN PARTEHARTZEARI BEHATZEKO ETA HURA BALIOESTEKO FITXA

BEHATUTAKO IKASLEA: .....

Partehartzea prestatu du?	BAI	EZ	OHARRAK:
. Gaiari buruzko informazioa lortu du.			
. Iturri bat baino gehiagotatik lortu du informazioa.			
. Lortutako informazioa gogoratzeko idatziz ekarri du.			
. Bere iritziak idatziz prestatzen ditu.			

BALORAZIOA: oso ondo/asko nahikoa eskas antzean gaizki/gutxi

.....

Parte hartu du?	BAI	EZ	OHARRAK:
. Besteen hitzak arretaz entzun ditu.			
. Lortu duen informazioa azaldu du, hori egitea tokatu zaionean.			
. Bere iritzia azaldu du, hori egitea tokatu zaionean.			
. Aurrez beste batek esandakoari buruzko bere desadostasuna edo adostasuna azaldu du.			
. Iritziak arrazoitu edo justifikatu ditu.			
. Moderatzaileak behartu edo eskatu dionean bakarrik hitz egin du.			
. Berak horrela nahi zuelako, bitan baino gehiagotan hartu du hitza.			
. Beste norbaitek esandakoari buruzko argibide gehiago eskatu ditu.			

BALORAZIOA: oso ondo/asko nahikoa eskas antzean gaizki/gutxi

.....

Elkarrizketarako arauak bete ditu?	BAI	EZ	OHARRAK:
. Besteei hitz egiten utzi die, hizketa-txanda eten edo oztopatu gabe.			
. Hitza modu egokian eskatu dio moderatzaileari (eskua altxatuz edo beste keinu batez, baina besteen hizketaldia oztopatu gabe eta arreta galdu gabe).			
. Moderatzailearen baimenarekin bakarrik hitz egin du.			
. Besteek esandakoa (ideiak, iritziak...) errespetatu du.			
. Besteen adierazpidea (hitz egiteko modua, keinuak...) errespetatu du.			

BALORAZIOA: oso ondo/asko nahikoa eskas antzean gaizki/gutxi

.....

Egoki hitz egin du?	BAI	EZ	OHARRAK:
. Gaiarekin zerikusia duten informazioak eta iritziak bakarrik azaldu ditu.			
. Informazioak eta iritziak modu ulergarrian adierazi ditu.			
. Besteek ondo entzuteko moduan, eta argi eta garbi ahoskatuz hitz egin du.			
. Hizkuntza zuzen erabiltzen ahalegindu da eta hitz egiterakoan egindako akats batzuk zuzendu ditu.			
. Esan duen zerbait ez dela ondo ulertu iruditu bazaio, saiatu da beste era batera adierazten.			
. Keinu, postura eta mugimendu egokiak erabili ditu.			

BALORAZIOA: oso ondo/asko nahikoa eskas antzean gaizki/gutxi

.....

68. Abestia: Gure kuadrilla

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 47. or./CDa, 5. pista

Ikasleek abestia bakarka irakurri ostean, taldean irakurtzeari ekingo diogu, adierazten duenaz jabetzeko. Gero, entzun eta letrarekin batera abestu.

- *Abestiak horrela dio: "Orain sei gara, laster dozena!" Zer adierazi nahi duela uste duzu esaldi horrek? Uste al duzue pertsonaia gehiago agertuko direla beste unitateetan? Koadrilan onartuko ote dituzte? Zer gertatuko dela uste duzu?*

Elkartasun-jolasak Txanela proiektuan

Jolasa gizakiaren garapenerako ezinbesteko bizi-ekintza da. Haurren ekintza ludikoetan hainbat prozesu sozial, emozional eta kognitibo martxan ipintzen dira eta prozesu horiek zuzenki erlazionaturik daude haurraren garapen global eta integralarekin.

TXANELA proiektuaren helburu nagusia ikaslearen garapen integrala (garapen motorea, kognitiboa, komunikatiboa, afektiboa eta gizarteratzekoa) izanik, garrantzi berezia eman nahi izan diogu hezkuntza kooperatiboari, eta hainbat eta hainbat eratako proposamenak txertatu ditugu proiektuaren garapenean zehar irizpide hori indartzeko. Proposamen horien artean kokatzen ditugu ELKARATASUN JOLASAK.

Maite Garaigordobil irakasleak "JUEGO COOPERATIBO Y SOCIALIZACIÓN EN EL AULA. Un programa de juego amistoso, de ayuda y cooperación, para el desarrollo socio-afectivo en niños de 10 a 12 años" liburuan, Seco olea ediciones S.L., proposatzen dituen jolasak aztertu eta gaien sekuentziari egokituz txertatu da aipatu programa.

Programa horren xedea honako hau da:

- Haurren garapen integrala eta bereziki dimentsio sozio-afektiboa potentziatzea, normaltasunez aurreratzen dutenena zein garapenean zailtasunak (ikasketetarako heldutasun falta, auto-kontzeptu urria...) eta bere kideekin harremanetan arazoak (lotsatiak, agresiboak, lagunengandik baztertuak...) dituzten ikasleena.

- Taldean elkarreragin kooperatiboa bultzatuz, haurren jarrera gizatiarra, garapen emozionala eta sormena sustatuz, beste kideekin batera lan egitea helburu bakar eta bera lortzeko eta, indibidualismoan eta konpetitibitatean oinarritutako hezkuntza eredua saihestuz.

Jolas horien **helburuak** hauexek dira:

- Ikasleen arteko ezagutza handitzea, taldekide guztien auto-baieztapena estimulatuz.
- Elkarreragin sozial baikorra, adiskidetsua, eraikitzailea... handitzea, taldeko kide izatearen sentimendua estimulatzea.

- Sozializazioa hobetzeko jokabide egokien garapena handitzea, ekimena, laguntasuna, arau sozialekiko errespetua... jokabide agresiboa, lotsatia, edo apatiazkoa gutxituz.
- Talde barruan hitzen bidezko zein hitzik gabeko komunikazioa hobetzeaz gain, entzumen aktiboa ere hobetzea.
- Taldekoen arteko laguntza-harremanak hobetzea, taldean kooperatzeko gaitasuna hobetzea, jokabide pro-soziala hobetzea, alegia.
- Taldeko kideen adierazpen integrala sustatzea eta bultzatzea (sentimenduak, emozioak, pentsamenduak, desioak, beldurrak...).
- Auto-irudiaren eta auto-kontzeptuaren hobekuntza erraztea.

Jolas horien ezaugarriak bost osagaitan bil daitezke:

- *Parte hartzea:* Denek hartzen dute parte memento oro, eta ez dago ez eliminaturik ezta galtzailerik ere. Eliminaziorik ez dagoenez, hain abilak ez diren ikasleek aukera dute euren trebeziak hobetzeko eta esperientzia handitzeko.
- *Onarpena:* Ikasle bakoitzak jokatzen duenean esanahiaz beteriko rola izango du, onartuko duen rola eta besteek ere onartu beharko dutena. Jokalariek elementuen kontra jokatzen dute, ez kideen kontra. Kidea kooperazio-lagun bezala ikusten dute eta, modu horretan, huts egiteari beldurra kenduko diote eta porrotaren ideia uxatu, helburua ez delako irabaztea.
- *Kooperazioa:* Ikasleek elkarri lagunduko diote memento oro, talde bezala jolasaren helburua betetzeko asmoz, euren ahalegina batuz eta trebezia ezberdinak konbinatuz helburu komun bat lortzeko.
- *Fikzioa:* Beti jolasten baitugu errealitateko zerbait bagina bezala "... izaten" edo "...izango bagina bezala".
- *Dibertsioa:* Era adiskidetsuan eta eraikitzailean elkarreraginean, ikasleen dibertsioa ziurtatuta dagoelako.

Jolas bakoitzaren ekintzak estimulatzen duen garapenaren edukiaren arabera, taldetan sailkatuta daude:

- **Aurkezpenekoak.** Talde-ezagutza.
- **Hitzen bidezko eta hitzik gabeko komunikaziozkoak.** Taldeko komunikazioa estimulatu, entzumen aktiboa hobetu.
- **Konfiantzazkoak.** Besteenganako eta norberaren buruarenganako konfiantza handitu.
- **Laguntza hartu eta ematekoa.** Behaketa-gaitasuna hobetu, besteen beharrizanez jabetu eta baikorki erantzun.
- **Kooperaziozkoak.** Parte hartu, elkar onartu, kooperatu, kolaboratu...
- **Adierazpen dramatikozkoak.** Rol ezberdinen adierazpenaren bidez norberaren emozioak adierazten ikasi. Auto-adierazpenen bidea.

Ziklo honetan, 24 elkartasun-jolas landuko ditugu, bi mailetan banaturik. Unitatean zehar azalduko da proposamena eta bertan adieraziko da zein taldeetako jolasa den.

Gaitasun guztien garapena ziurtatu nahian, talde guztietako jolasak proposatu ditugu; dena den, jolasen programa horrek eraginkortasuna izan dezan, komenigarria da, gai bakoitzean aurkezten diren jolasez gain, saio bakoitzean aurreko gaietan jolastutakoak ere bat edo beste berreskuratzea eta jolastea, behaketaren bidez talde bakoitzaren beharrizanaren arabera.

Jolas-saio bakoitza hiru fasetan antolatuko dugu:

- *Sarrera:* Korroan eserita, jolas kooperatiboen oinarrizko ideia eta helburua birgogoratuko ditugu (adiskide gisa jolastea, elkarri laguntzea, kooperatzea...), eta horren ostean, jokatuko den jolasaren azalpena emango dugu.
- *Garapena:* Jolasa azaldu eta horretan jokatzea.
- *Berbalizazio-hausnarketa:* Biribilean eserita, esperientziari buruz hitz egingo dugu, sentimenduak, zailtasunak, sortu diren arazoak, kooperazioak dituen onurak, etab. aipatuz. Ziklo bukaeran, ikasleek auto-ebaluazio eta autokritikarako gaitasuna ikaragarri garatuko dute.

Hausnarketarako galdera posible bezala hurrengo hauek luzatzen dizkizuegu:

- Nola sentitu zarete jolasten ibili zaretenean?
- Jolasen arauak bete al dira?
- Denek hartu al dute parte jolasean, kolaboratuz?
- Norbaitek ikusi al du beste kideren bat baztertua izan dela?
- Taldetik baztertzen gaituztenean, nolako sentimenduak izaten ditugu?
- Zein dira gehien gustatzen zaizkizuen jolasak? Zergatik?
- Zein jolas ateratzen dira hobeto? Zergatik izango ote da?
- Zein izan dira jolasa antolatzeko orduan izan ditugun zailtasunak?
- Zuen partehartzearekin taldeari mesede egin diozuen sentimendua al duzue?
- Beste kideek lagundu al dute?
- Norbaitek mina hartu al du?

69. Elkartasun-jolasak

Lan egiteko era: Talde handian
Materiala: Ikaslearen liburua, 47. or.

Hor goiko azalpenean azaldutako prozedurari jarraituko diogu talde handian, ondoren dituzuen bi jolasekin.

Laguntza hartu eta emateko jolasa:

1. Hasteko, harrapatzaile bat behar dugu; horretarako, txotx egingo dugu. Harrapatzaile bakar batekin edota bat baino gehiagorekin jolas daiteke, ikasle kopuruaren arabera. Harrapatzailea nor den dakigunean, beste ikasle guztiak gelatik zehar korrika hasiko dira, hark harrapa ez ditzan. Harrapatzaileak norbait ukitzean, ukitutakoa estatua bat bailitzan geratuko da, norbait etorri eta besarkada sakon (pare bat segundokoa eta patxadazko besarkada behar du izan) batez salbatuta geratu arte. Salbatzen denean, bi lagunek eskutik oratuta joan beharko dute korrika harrapatzailearengandik ihesi. Harrapatzaileak bi horietako bat ukituz gero, ukitutakoa geldi geratuko da, eta besteak ihesi egingo du, harrapatzaileak harrapa ez dezan. Jolasten hasi eta minutu batzuen ostean bukatuko da jolasa.

- *Gustuko izan al duzue jolasa? Nola sentitu zarete bestea salbatzean? Nola sentitu zarete bestearekin batera korrika ibili behar duzuenean? Nola sentitu zarete salbatu zaretenean? Nola sentitu zarete bestea besarkatzean? Zer izan duzue nahiago bakarrik ibiltzea edo norbaitekin eskutik helduta?*

Konfiantzazko jolasa: norberarengan eta bestearengan

2. Gela bi taldetan banatuko dugu. Talde bakoitzeko kideek biribil handi bat osatuko dute. Zotz egin ostean, tokatu zaiona biribilaren erdian jarriko da. Zapi batekin begiak estaliko dizkiogu. Erdiko lagun hori ibiltzen hasiko da biribilaren erdi aldetik noraezean, eta korrotik kanpo ateratzera doan bakoitzean, biribila osatzen duten eta beragandik gertuen dagoen lagunak eskuekin geldiarazi, bira emanarazi eta beste norabide batean jarriko du erdiko laguna. Biribileko lagunen lana erdiko laguna korrotik ez ateratzea izango da; nolabait, kanpoan egon daitekeenarengandik babestu egingo dute.

- *Nola sentitu zara begiak itxita noraezean ibiltzean? Konfiantzarik izan al duzu besteengan? Eta zeuregan?*

70. Gurutzegrama
Lan egiteko era: Bakarka
Materiala: Lan-koadernoa, 20. or.

Unitatean zehar landutako hainbat kontzepturen definizioak dituzue gurutzegraman. Ikasleek bakarka horiek irakurri eta gurutzegrama osatzeari ekingo diote, ikasitakoa indartzeko asmoz. Gurutzegramak oso tresna baliotsuak dira hainbat kontzepturen definizioak ikasteko, berriak sortu eta erabili ere egin ditzakezue, hirugarren eta laugarren mailan era horretako saiakerak egin baitituzte ikasleek.

71. Kontzeptuen arteko erlazioak
Lan egiteko era: Bakarka
Materiala: Lan-koadernoa, 21. or.

Kontzeptuen definizioak ikastea garrantzitsua da, baina kontzeptuen arteko erlazioaz jabetzea are eta garrantzitsuagoa. Esandakoaz jabetzeko, ikasleek jarduera bakarka osatzeari ekingo diote. Bukatzean, erantzunak elkarren aurrean azaltzeko, sor ezazue elkarrizketa.

Bestalde, aukera polita litzateke kartulina txikietan ikasitako kontzeptuen izenak idaztea eta jolas bat antolatzea. Pare bat kartulina hartu eta euren arteko erlazioa zuzen adieraziz gero, txartelak norberaganatuz.

72. Diagrama
Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka
Materiala: Lan-koadernoa, 22. or.

Talde handian, eskema eta diagrama inklusiboei behatuz, ikasitako informazioaren eskema osatzeari ekingo diogu arbelean. Gero, ikasleek, euren lan-koadernoan, eskemari jarraituz, azalpen-testu modura gara dezaten.

73. Proiektua gauzatzen

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 48. or.

Taldean proiektua nola burutuko dugun adosteko, orrialde honetako informazioa irakurriko dugu, bertan adierazitako alderdien inguruko erabakiak hartuz. Jarraian, proiektua gauzatzeari ekingo diogu. Bukatzean, lan guztia baloratzeko elkarrizketa sortuko dugu, ipuin-egite prozesua, aurkezpena, planifikazioa, gogoa, gozamena eta abar, era eraikitzailea baloratzeko edota kritikatzeko, garrantzitsua baita ikasleak egindako lanaz jabetzea, izandako zailtasunez ohartzea, hori guztia aprendizaiaren alderdi garrantzitsua baita, hurrengo batean egin beharreko lanaren aurrean zailtasunak aurre-ikusteko eta ahal den neurrian saihesten ikasteko. Hurrengo jardueran, proiektuari buruzko bakarkako balorazioa egiteko aukera daukazue.

74. Sintesia

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 49., 50., 51. eta 52. or.

Unitate honetan, hainbat eduki (kontzeptuzkoak, prozedurazkoak eta jarrerazkoak) landu dira. Horietako batzuk prozesuaren baitan behatu eta ebaluatu beharrekoak (ipuin-idazketa, arte hezkuntzako hainbat lan, dramatizazioak, elkarrizketak...) dira, bertan hartzen baitute zentzua. Baina badira beste batzuk, unitate bukaeran ebalua daitezkeenak eta ebaluatuko ditugunak. Orrialde hauek aproposak dira ikasleei eta baita irakasleei ere lan hori errazteko. Unitatea landu ahala, egindako lanari begiratzeko parada emango digute, hainbat balorazio egiteko, ikasleek eurek dakitenaz jabetzeko eta ez dakitenaz ohartuz errepasatu eta ikasi beharrekoa sakontzeko aukera emanez.

75. Hemen edo han, gure Txanelan!

Lan egiteko era: Talde txikian/Talde handian

Talde handian, unitatea landu bitartean bildutako argazkiak antolatu eta haiei dagozkien azalpentxoak idatzi ondoren, gure albumeko lehenengo atala osatuko dugu. (Gaur egun, kamera digitalak erabiliz, oso konposizio politak egin daitezke). Album hori gelan begi-bistan izan dezakegu, nahi dugunean bertara jotzeko. Agian, atril antzeko batean koka dezakezue. Albumeko atal bakoitza bukatzen duzuenean, har ezazue denbora egindakoa lasai ikusteko eta hartaz gozatzeko.

Musikako lan-koadernoa

1.1 JAI-GIROAN

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka
Materiala: Musikako lan-koadernoa, 3. or./CDa, Musika 5, jarduerak, 1. pista

Ez dago musikarik gabeko festarik, musikarik gabeko jairik. Uda luzea izan da, eta Euskal Herriko hiriburuak bisitatzeko aukera izango zuten gure ikasleek. Baita jai-giroan murgiltzeko aukera ere. Musika ugari entzungo zuten udako oporretan.

Zazpi musika-pasarte entzungo ditugu eta horietako bakoitza Euskal Herriko hiriburu batean kokatuko dugu. Horietako batzuk, agian, arraroak egingo zaizkie ikasleei. Marrazkiari begiratu eta musika-iturria identifikatzean, dultzainak emango ditu buruhauste handienak. Horregatik, komeni da ariketa burutu aurretik musika-tresna honi buruz argibide txiki batzuk ematea. Adibidez:

- Haizezko musika-tresnen familiakoa dela.
- San Fermin festetan-eta, Nafarroan batez ere, asko entzuten dela.
- Bikote batek jotzen duela atabalari baten laguntzarekin.
- Birika sendoak eduki behar direla dultzaina jotzeko, eta abar.

Iruñea eta dultzaina abiapuntutzat hartuta, gainerako musikariak ere aztertuko ditugu. Ea noiz edo noiz ikusi dituzten. Ea gustukoak dituzten. Horrelako musika-tresnarik jotzen duen norbait ezagutzen duten. Zein familiatako tresnak diren, eta abar.

Hona hemen, diskoan entzungo dugunaren arabera ordenatuta, zazpi musika-pasarteak:

1. Trikitilariak
2. Joaldunak
3. Dultzaina-jotzaileak
4. Txalapartariak
5. Abeslariak
6. Txaranga
7. Txistulariak

1.2 TXIRULA JOTZEN IKASTEN

Lan egiteko era: Talde handian
Materiala: Musikako lan-koadernoa, 4. or./CDa, Musika 5, jarduerak, 2. pista

ITSASOA HASERRE

Bosgarren maila honetan ere txirula lantzen jarraituko dugu. Betiere, orain arte bezala, partitura baten aurrean gaudenean, azkeneko urratsa izango da txirulaz interpretatzea.

Txirula jotzeko fitxak egitean, aurreko ikasturteetan jarraitu diogun prozedurari eutsiko diogu. Hau da guk proposatzen dizueguna:

- Erritmoa irakurri eta markatu.
- Hitzak erritmikoki irakurri.

- Solfeatu.
- Abestu.
- Txirula jo.

Bestalde, aurreko urteetan, txirula jo aurretik, "entrenamenduak" egiten genituen. Aurten ere jarrai dezakegu halako ariketatxoak egiten, batez ere, nota berriren bat edo zelula erritmiko berriren bat agertzen zaigunean.

Txirularen atalean, maila honetan ere zenbait kanta eta melodia aurkezten ditugu. Tartean, kanonak ere bai, txirulaz jotzeko, jakina. Gehiago behar izanez gero, merkatuan badira zenbait liburu eta bilduma. Ziur gaude zuek ere eskura izango dituzuela.

Txirulaz jotzeko lehenengo kanta hau, "Itsasoa haserre", hiruko neurrian idatzita dago. **Beheko Re**-tik **goiko Re**-rainoko nota guztiak hartzen ditu, **Si b** izan ezik. Horregatik, Re minorreko tonalitatean egon arren, ez dugu bemolaren ikurrik jarri.

Ikasleak pentagramari begira jarri, eta horren nondik norakoak argituz joateko zenbait galdera luzatuko dizkiegu:

- Zein da notarik altuena edo agudoena?
- Eta notarik baxuena edo grabeena?
- Zein da gehien errepikatzen den zelula erritmikoa?
- Eta gutxien agertzen dena?
- Zein da gehien errepikatzen den notaren izena?
- Zenbat pentagrama ditu melodia honek?
- Eta zenbat konpas?
- Zein da nota ezberdin gehien dituen konpasa?

Garrantzitsua deritzogu era honetako galderak egiteari. Izan ere, arreta jartzea eskatzen dio ikasleari, eta, aldi berean, ongi erantzun nahi horretan, pentagramak gero eta azkarrago irakurtzen lagunduko dio.

1.3 NEURRIAK NEURRI

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka
Materiala: Musikako lan-koadernoa, 5. or.

Konpas bakarreko bederatzi konpas daude fitxa honetan, eta egin beharreko lana oso erraza da, aurrez ikasitakoak gogoratu eta arreta pixka bat jartzen badute ikasleek. Bakoitzari dagokion neurria jarri beharko diote **Solen ikurraren** eskuinaldean.

Hala ere, fitxa egin aurretik, arbelean zenbait adibide azal ditzakegu. Pentagramak idatzi ordez erritmo-marrak ere erabil daitezke, bost marra egin beharrean bat bakarra eginez, alegia.
Zuriak, beltzak eta kortxeak ekarriko ditugu gogora, euren balio eta iraupenarekin.

1.4 TXIRULA JOTZEN IKASTEN

Lan egiteko era: Talde handian
Materiala: Musikako lan-koadernoa, 6. or.

GOIKO "MI"

Nota berri batekin egin dugu topo. Orain arte ikusitako notarik agudoena da. Bere kokapena ikusi besterik ez dago: pentagramako laugarren tartea.

Txirularekin jotzean, hasieran behintzat, zailtasunak ematen ditu nota honek.

Goiko "Mi" hau jotzeko garaian, bi aukera agertzen zaizkigu. Zenbait ikas-metodotan txirularen atzeko zuloa (ezkerreko hatz lodiari dagokiona) erabat irekita utzi behar dela diote. Beste zenbaitetan, ordea, zulo hori erabat ez ixtea gomendatzen dute; alegia, erdia zabalik uzteko gomendioa egiten digute. Guk, hasieran behintzat, errazena eta erosoena aukeratzea pentsatu dugu. Lehenengo modu hau gainditu ondoren, bestearekin froga egin daiteke. Hala ere, irakasle bakoitzaren esku uzten dugu zein modu aukeratu.

Fitxa honetan, bi ariketa proposatzen ditugu goiko "Mi" hori lantzen hasteko. Gehiago behar izanez gero, asmatu egin beharko dituzue.

Ahoz adieraz dezakezue erritmo-eskema bat, eta ikasleek txirula joz errepika dezakete. Egokiak dira aurreko urteetan egin ditugun gisako "entrenamendu" ariketak, landu nahi dugun nota horretan arreta berezia jarri, noski. Hona hemen zenbait adibide:

IRAKASLEAK	**IRAKASLEAK**
MI MI / MI'	MI MI / MI'
MI MI / MI' MI' MI'	MI MI / MI' MI' MI'
MI MI MI / MI' MI' MI'	MI MI MI / MI' MI' MI'
MI MI MI MI / MI' MI' MI' MI'	MI MI MI MI / MI' MI' MI' MI'
DO' RE' / MI'	DO' RE' / MI'
DO' RE' / MI' MI' MI'	DO' RE' / MI' MI' MI'
DO' DO' RE' RE' / MI' MI' MI'	DO' DO' RE' RE' / MI' MI' MI'
SI SI / MI'	SI SI / MI'
SI SI / MI' MI' MI'	SI SI / MI' MI' MI'

Oharrak:

1. Agudoak eta grabeak bereizteko, kakotxa jarri diegu agudoei.
2. "Entrenamendu" ariketan ez dugu notarik idatzi, baina proposatzen ditugunak zuriak, beltzak eta kortxeak dira. Betiere biko neurrian eta bi konpas eginez proposamen bakoitzean.

1.5 TXIRULA JOTZEN IKASTEN

Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian
Materiala: Musikako lan-koadernoa, 7. or./CDa, Musika 5, jarduerak, 3. pista

AXURI BELTZA

Orain proposatzen dugun kanta aski ezaguna da. Gure lana txirulaz jotzea izan arren, zergatik ez dantza egiteari ekin? Ongi ikasitakoan, batzuek txirula jo eta besteek dantzatu.

Hamahirugarren konpasean, **goiko "Mi"** agertzen zaigu. Behin bakarrik oraingoz. Agian, hor topatuko dute ikasleek zailtasunik handiena. Ongi ateratzen ez bada, azkeneko lau konpasak hartu eta horiek bakarrik landuko ditugu hobekuntza nabaritu arte. Hamar aldiz joko dugu pasarte hori, denok batera eta gelditu gabe.

Ondoren, beste hamar aldiz, baina, oraingoan, ikasle bakoitzak bi atseden egiteko aukera izango du. Hau jolas baten gisakoa da. Horrela proposa dezakezue:

Ikasle bakoitzak aukera ditzala 2 zenbaki, batetik hamarrera. Ez dio inori esan behar zein aukeratu dituen. Irakasleak zenbakiz adieraziko du errepikapen bakoitza: 1, 2, 3, ... Ikasle batek 2 eta 6 zenbakiak aukeratu baditu, hor deskantsua hartuko du txirula jo gabe, baina beste guztietan jo egin beharko du.

Gure helburua goiko "Mi" ongi ateratzea da, eta, horretarako, bururatzen zaizkigun estrategia guztiak erabiliko ditugu, baina, ahal izanez gero, ikaslea nazkarazi gabe.

1.6 TXALAPARTAN

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka
Materiala: Musikako lan-koadernoa, 8. or.

Nork ez du txalaparta ezagutzen? Bi ohol. Bi pertsona. Bakoitzak bina makila. Hau izan da betidanik ezagutu izan den txalaparta. Gaur egun, berrikuntzak ikusten ari gara. Funtsean, berdina da: bi pertsonen arteko elkarrizketa. Hauetako batek erritmo bat markatzen du (ttakun), eta besteak lagunak utzitako hutsuneak bere gustura betetzen ditu, erritmo zirraragarriak eta biziak sortuz.

Gaur egungo txalapartariek ohol gehiagorekin ere jarduten dute hots berriak eta ugariagoak sortuz. Egur-oholen ordez marmol edo granitozko plantxak erabiltzen hasita daude txalapartari batzuk. Kanpandorreetan ere ikusi izan dira zenbaitetan txalapartariak kanpai hotsekin jolasean. Izotz blokeak ere erabiltzen ikusi ditugu.

Lan-koadernoko ariketa honetan txalapartari bihurtuko dira gure ikasleak. Baina ez dute bikoterik izango. Ez eta inprobisatzeko aukerarik ere. Ezkerreko eskuak ezkerreko belaun gaina kolpatuko du. Eskuineko eskuak, aldiz, eskuineko belauna.

Irakasleak sarrera emango du, modu horretan ariketaren "tenpoa" markatuz. Soinua baino garrantzitsuagoa erritmoaren sentiera izango da. Belaun gainek eskertuko dute.

Laguntze aldera, entsegu txiki bat egin dezakegu. Ahozko irakurketa egingo dugu, lehenik. Beheko marrako zelula erritmikoei hots bat egokituko diegu: “TAN”, eta goikoei beste bat: “TXIN”. Baina badugu beste egoera bat ere: bi zelulek une berean topo egiten dutenekoa, eta jakina, ezin dugu aldi berean “TAN” eta “TXIN” esan. Beraz, goiko marran eta beheko marran aldi berean agertzen zaigun zelula erritmiko hori “PROM” esanez egingo dugu.

Argiago ikus dezazuen, horrela irakurriko genuke, adibidez, 4. ariketa:

“TAN” “TXIN” “TAN” “TXIN” “TAN” “TXIN” “PROM”

Beraz, gure proposamenaren prozedura honako hau da:

1. Ahoz irakurri eskemak.
2. Ahoz eta belaun gainak kolpatuz.
3. Ahoak itxi eta eskuekin belaun gainak kolpatuz.

1.7 KORTXEAERDIA

Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian/Bakarka
Materiala: Musikako lan-koadernoa, 9. or.

Laugarren mailan ikasitako zerbait dakarkigu gaurkoan: **kortxeaerdia**.

Lan-koadernoan ikus daitezke zer modu eta egoeratan agertzen zaizkigun zelula hauek.

Amaieran, ariketa bat proposatzen dugu. Zelula ezberdin bakoitzak soinu-iturri bat izango du, eta, horretarako, gure gorputz atalak erabiliko ditugu.

Astiro-astiro eta pazientziaz egitea gomendatzen dizuegu. Izan ere, fitxaren barrenaldean agertzen den kodea oso ondo memorizatu behar da.

Beste era batera ere egin dezakezue, aurrekoa ongi egin ondoren: 3 talde osatu, eta talde batek beltzak interpreta ditzala, bigarrenak kortxeak eta hirugarrenak kortxeaerdiak. Arreta handia jarri behar da horrela egiteko, izan ere, “tenpoa” ez da aldatzen hasi eta bukatu arte.

Hurrengo urrats bat, ariketa bera perkusiozko tresnak erabiliz egitea izan daiteke.

1.8 TXIRULA JOTZEN IKASTEN

Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian
Materiala: Musikako lan-koadernoa, 10. or./CDa, Musika 5, jarduerak, 4. pista

GAU ARGITAN

Lauko neurrian idatzitako melodia eta kantua. Erraza izanik, pittin bat aztertzen badugu, hara zenbat gauza agertzen zaizkigun:

Anakrusa

- Aurreko fitxan aurkeztutako **kortxeaerdia** nonahi ikus genezake, baina, oraingoan, **punttua** duen kortxeari lagunduz, harekin bikotea osatuz.
- **Biribila**rekin ere topo egingo dugu kanta honetan, eta iraupena nahiko luzea ez balitz, **ligadura** edo **loturar**en bidez bosgarren taupada bat ere gehitu beharko diogu.

Aukera polita da orain arte ikasitako hainbat kontzeptu errepasatzeko.

Kantuarekin jarraituz, bost taupadako tarte luze honetan (biribila loturarekin), berrikuntza bat sartzen saiatuko gara: aurreko pasartea errepikatuko dugu, bai kantuan ari garenean, bai txirula jotzean. Horretarako, bi talde egin beharko ditugu: A eta B. A taldea hasiko da, eta berak eramango du iniziatiba. B taldeak, loturak irauten duen denboran, A taldeak egindakoa errepikatuko du, melodia osoa eta berdina egitera iritsiz.

Bestelakoan, gogoratu ohiko prozedurari jarraitzea txirula jo aurretik:

- Erritmoa irakurri eta markatu.
- Hitzak erritmikoki irakurri.
- Solfeatu.
- Abestu.
- Txirula jo.

Oharra: A taldeak egin duena B taldeak egin dezala, eta B taldeak egin duena, berriro A taldeak. Horrela, ikasle guztiek bizi ahal izango dute sentsazio bera.

1.9 ESKALA

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka
Materiala: Musikako lan-koadernoa, 11. or./CDa, Musika 5, jarduerak, 5. eta 6. pistak

Eskala errepasatuko dugu. Irakasleak lan-koadernoan agertzen diren motako galderak luzatuko dizkie ikasleei. Jolas bat izanik, ikasleen arreta lortuko duzue. Adibidez, errazenetik hasiko gara.

• Irakasleak jarraian dauden hiru nota esango ditu eta ikasleek ondorengoa.
  - Irakasleak: Do Re Mi
  - Ikasleek: Zuzen erantzunez gero, Fa esango dute.

• Eskala atzekoz aurrera ere egingo dugu.
  - Irakasleak: Si La Sol
  - Ikasleek: Oraingoan ere Fa.

Aurrerago, bakarkako froga egin dezakezue. Erantzuteko gehienezko denbora proposatu beharko duzue, eta erronda azkar batean hutsegiteak nork egiten dituzten eta baita denboraren barruan erantzun ez dutenen izenak ere idatziko dituzue. Ea amaieran nolako zerrenda osatzen duzuen.

Lan-koadernora itzuliz, ikasleak erantzunak idatziko ditu ezkerraldeko ariketan: batzuetan, nota bat; besteetan, bi nota.

Eskuinaldeko ariketan, berriz, hutsuneak notaz bete beharko dira. Eskalak osatu beharko dira, abiapuntua edozein nota delarik. Ohituak gaude Do-tik Do-rainoko eskala burutzen, eta txikitan ikasitakoa denez, ez zaigu ahazten. Oraingoan, Re edo Mi-ren eskalak ere idatziko ditugu.

ABESTIAK

FURRA-FURRA-FURRIAN

A

Furra-furra-furrian
mandio berrian,
atso zaharrak ari ziren
truke trukean.
Furra-furra-furrian
mandio berrian,
ari ziren, ari ziren
truke trukean.

B

Truka truk zerbait emango nuke,
Truka truk musu baten truke.
Truka truk zerbait emango nuke,
Truka truk musu baten truke.

Kantatzea bezain garrantzitsua da, gure musika-heziketan, gorputza mugitzea. Beraz, hemen duzuen kanta hau, erritmoa bizi, erritmoa barneratu eta dantza egiteko aukeratu dugu.

Denok dakigu zeinen zaila den paper batean dantza baten argibideak ematea, baina, saiatuko gara.

Jarrera:

Zutik, bi lerrotan eta elkarri begira.

A aldean:
Arin-arin dantzaren pausoak egingo ditugu, albo batera, bestera eta jiraka.

B aldean:
Elkarri begira daude ikasleak eta ondorengo erritmo-eskemaren arabera mugimendu hauek egingo dituzte:

e e q q q
PLIS-PLIS PLAS HATZA HATZA

PLIS-PLIS PLAS = norberaren belaun-gainak eskuz kolpatu.
HATZA, HATZA = bikotearen hatz erakuslea ukitu. Aurrena eskuineko eskukoa, gero ezkerrekoa.

e e q q q
PLIS-PLIS PLAS UKONDO, UKONDO

PLIS-PLIS PLAS = norberaren belaun-gainak eskuz kolpatu.
UKONDO, UKONDO = bikotearen ukondoa ukitu. Aurrena eskuinekoa, gero ezkerrekoa.

e e q q q
PLIS-PLIS PLAS MUA! MUA!

PLIS-PLIS PLAS = norberaren belaun-gainak eskuz kolpatu.
MUA! MUA! = aurreko lagunari bi musu eman, masail batean eta bestean.

e e q q q
PLIS-PLIS PLAS IPURDI, IPURDI

PLIS-PLIS PLAS = norberaren belaun-gainak eskuz kolpatu.
IPURDI, IPURDI = ipurdiarekin, aurrekoaren ipurdia kolpatu. Alde batetik eta bestetik.

LOREA BEHAR DUGU
Mahai bat egiteko egurra behar dugu,
egurra egiteko zuhaitza behar dugu,
zuhaitza egiteko hazia behar dugu,
hazia egiteko fruitua behar dugu,
fruitua egiteko lorea behar dugu,
lorea behar dugu, lorea behar dugu,
zerbait egiteko lorea behar dugu.

Lorea egiteko adarra behar dugu,
adarra egiteko zuhaitza behar dugu,
zuhaitza egiteko basoa behar dugu,
basoa egiteko mendia behar dugu,
mendia egiteko lurra behar dugu,
lurra egiteko lorea behar dugu,
zerbait egiteko lorea behar dugu.

Abesti honen helburuak bat baino gehiago direla esan genezake:
1. Kantatzea.
2. Poesia-irakurketari buruz eta esanahiaz hitz egitea.
3. Poesia honetako hitz nagusi bakoitzari keinu bat ezartzea eta memorizatzea.
4. Kantatzearekin batera keinuak egitea.